

**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKAL
PROGRAMA**

**JARRAIPEN-MISIOA
HONDURAS 2017**



2017ko uztailaren 15etik 21era

Azalaren argazkia: Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoko horma

Txostenaren egilea:



Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa:



Laguntzaileak:



Bilbo, 2018.

EDUKIEN AURKIBIDEA

SIGLAK.....	4
ESKER ONA.....	5
HITZAURREA.....	6
ORDEZKARIEN TALDEA.....	7
EGIN DIREN BILERAK.....	8
HONDURAS HERRIALDEAREN EGOERA ETA TESTUINGURUA.....	10
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA.....	21
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEIA.....	29
ONDORIOAK.....	34
BIBLIOGRAFIA.....	36

SIGLAK

ACI Participa: Asociación para una Ciudadanía Participativa.

ACNUR: Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Komisarioa.

AECID: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia.

APUVIMEH: Hondurasen GIBak eta HIESak infektatuta eta erasanda dauden pertsonen bizitza hobetzeko elkarte.

CEMH: Hondurasko Emakumeentzako Ikasketa Zentroa.

COFADEH: Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordea

CONADEH: Giza Eskubideen aldeko Hondurasko komisario nazionala.

COPEMH: Irakaskuntza Ertainen Hondurasko Irakasleen Kidegoa.

CSJ: Justiziako Gorte Gorena.

CUTH: Hondurasko Langileen Konferentzia Unitarioa.

DIC: Krimen Ikerketarako Zuzendaritza.

ERIC: Hausnartzeko, ikertzeko eta komunikatzeko taldea, Jesús-en konpainiako.

IDAMHO: Ingurumen Zuzenbideko Hondurasko Institutua.

INEHSCO: Komunitateari Zerbitzu egiteko Institutu Ekumenikoa.

JDH: Giza Eskubideen Defentsaren aldeko Gazteak.

LGTBTI: Lesbianak, Gayak, Transexualak, Transgeneroa, Bisexualak eta Intersexualak.

MACCIH: Hondurasko Ustelkeriaren eta Zigorgabetasunaren kontrako Laguntza Misioa.

MAS: Ingurumenaren aldeko Santa Barbara udalerriko Mugimendua.

MAU-UNAH: Unibertsitate Mugimendu Zabala – Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoa.

MENAS: Bidaidetik gabeko atzerritar adingabeak.

MEU: Unibertsitateko Ikasleen Mugimendua.

MP: Ministerio Publikoa.

OACNUDH: Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa.

OEA: Amerikako Estatuaren Erakundea (OEA, ingelesezko izenaren arabera).

GGKE: Garapenerako gobernu kanpoko erakundea.

STIBYS: Edarien eta Antzeko Produktuen Industriako Langileen Sindikatua.

UNAH: Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoa.

ESKER ONA

Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa eragin politikodun babes-tresna da, jazarpen- eta mehatxu-egoeretan giza eskubideak babesten lan egiten duten defendatzaileentzat. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatzen dugu ordezkariak lurra bisitatzea.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak, liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarritz egindakoa, ekarpen baliagarria da gure berradiskidetze-eraldaketa sozialaren prozesuetarako.

Euskal Ordezkaritzak eskerrak eman nahi dizkie giza elkarteei eta Hondurasko gizarte- eta herri-mugimenduei ere, egindako harrera apartagatik eta haien salaketa, erresistentzia eta proposamenak gurekin partekatzeagatik. Gure esker ona Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordeari (COFADEH) adierazi nahi diogu, bereziki.

Eskerrak, halaber, Hondurasko eta nazioarteko erakundeei eta nazioarteko eragileei, bisita honetan zehar laguntzeko izan duten prestutasunagatik eta eskainitako denborarengatik. Eskerrik asko giza eskubideen egoerari buruz duten ikuspegia guri jakinarazteagatik.

Honduras pobreziarik eta indarkeriarik gabeko herrialdea eraikitzen lan egiten duten pertsona guztiei elkartasuna eta laguntza erakutsi nahi dizkiegu beste urte batean ere.

HITZAURREA

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak *Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programa* martxan du, 2011z geroztik¹. Programa horren barruan, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan aldi batez babesten ditu jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak edo horren arriskuan daudenak, giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik. Nazioartean dituen laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, honako ekintza hauek proposatzen dira Euskadin emango duten sei hilabeteko egonaldirako:

1. Laguntza psikosoziala: laguntza horrek babesaren ikuspegi integrala lantzen du. Honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduari buruzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, aldi batez herrialdetik irten eta sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa: Euskal Autonomia Erkidegoko egonaldian egiten den lanaren helburua nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea da, pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo bezala jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horrez gain, programak balio du euskal herritarrei eta EAEko erakunde publikoei —eta baita Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda: haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren arloetan. Egin duten lanagatik aintzatespena jaso duten pertsonak direnez, txostengile gisa ere parte hartuko dute esparru akademikoetan eta sozialetan.
4. Babesteko laguntza: defendatzaileak babesteko programan ANSUR kolektiboko kideek ere parte hartzen dute, irteeran, egonaldian eta itzuleran segurtasuna eta babesa kudeatzeko.

Programa CEAR-Euskadik koordinatzen du, eta, Hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere programako kideak dira: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEren Koordinatzailea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroa.

ITZULI ONDORENGO JARRAIPENA, HONDURASKO MISIOAN

Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordeko (COFADEH) eta Komunitateari Zerbitzu egiteko Institutuko Ekumenikoko (INEHSCO) bi hondurastar kidek Babesa emateko Euskal Programan parte hartu zuten 2016an.

Honduras herrialdera itzuli eta gero, euskal ordezkari batzuk Hondurasera joan ziren 2017ko uztailaren 15etik 21a arte, hainbat xede betetzeko asmoz: norberaren egoeraren eta komunitatearen egoeraren jarraipena bertan egiteko, babes-sarea indartzeko eta euskal gobernuaren, legebiltzarraren eta antolatzaileen babesa erakusteko.

Txosten honetan bildu ditugu bisitaldian jasotako eduki nagusiak, besteak beste, egindako bilerei, herrialdearen egoerari, giza eskubideen defendatzaileen egoerari eta nazioko zein nazioarteko babes-mekanismoei buruz. Amaierako apartatuan, ordezkarien gomendioak eta iritziak jasota daude, han behatutako egoerari buruz.

¹<http://www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos-proyecto/web01-s1lehbak/es/>

ORDEZKARIEN TALDEA

EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria.

Maite Garmendia Eguinoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Mónica Fernández Vidal, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN ETA BERDINTASUN BATZORDEA

Ana Isabel Oregi Bastarrika, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko burua.

Amaia Arregi Romarate, Euzko Abertzaleak.

Eduardo Mancisidor Artaraz, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko letradua.

Eukene Arana Varas, Elkarrekin Podemos.

Juana de Bengoetxea Estrade, Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra.

Oihana Etxebarrieta Legrand, Euskal Herria Bildu.

Rafaela Romero Pozo, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

GIZARTE ELKARTEAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

ALDARTE, Lesbiana, gay eta transexualen arreta zentroa eta sexu-askatasunen aldeko ikasketen eta dokumentuen zentroa: Inmaculada Mújica Flores y Fernando Altamira Basterrechea.

Mundubat Fundazioa: Hugo Hernández Flores.

Joxemi Zumalabe Fundazioa: María Pilar Álvarez Moles.

Comisión de Ayuda al Refugiado (CEAR-Euskadi): Itziar Caballero González.

BILERAK

San Pedro Sula (Cortés Departamentua)

Gizarte-erakundeak eta kolektiboak

- Komunitateari Zerbitzu egiteko Institutu Ekumenikoa (INEHSCO).
- Hausnartzeko, ikertzeko eta komunikatzeko taldea (ERIC) eta Radio Progreso; Jesús en konpainiako Apostolutza Sozialaren ekimenak.

Erakunde publikoak

- Giza Eskubideen Nazioko Komisarioaren Iparraldearen Eskualdeko Bulegoa (CONADEH).

Tegucigalpa

Hondurasko elkarteak eta mugimenduak

- UNAHeko ikasle lizentziadunen gurasoen elkarte (Asociación de Madres y Padres de hijos/as Licenciados, de la UNAH)
- Asociación para una Ciudadanía Participativa, ACI Participa.
- Hondurasen GIBak eta HIESak infektatuta eta erasanda dauden pertsonen bizitza hobetzeko elkarte (APUVIMEH).
- Alianza Etxea
- Hondurasko Emakumeentzako Ikasketa Zentroa (CEMH).
- UNAHeko Gose-grebarako Batzordea.
- Adierazpen-askatasunaren aldeko Hondurasko Batzordea (C-Libre).
- Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordea (COFADEH).
- Irakaskuntza Ertainen Hondurasko Irakasleen Kidegoa (COPEMH).
- Hondurasko Langileen Konferentzia Unitarioa (CUTH).
- Edarien eta Antzeko Produktuen Industriako Langileen Sindikatua (STIBYS).
- Ingurumen Zuzenbideko Hondurasko Institutua (IDAMHO).
- Komunitateari Zerbitzu egiteko Institutu Ekumenikoa (INEHSCO).
- Giza Eskubideen Defentsaren aldeko Gazteak (JDH).
- La Vía Campesina (Honduras).
- Ingurumenaren aldeko Santa Barbara udalerriko Mugimendua (MAS).
- Unibertsitate Mugimendu Zabala – Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoa (MAU-UNAH).
- Unibertsitateko Ikasleen Mugimendua (MEU).
- Hondurasko Nekazaritza Plataforma (Plataforma Agraria Honduras).
- Bizitza Duinaren aldeko Erdialdeko Amerikako Borrokalarien Sarea (Red de Mesoamericanas en Resistencia por una Vida Digna)
- Santa Bárbarako Emakumeen Sarea (Red de Mujeres de Santa Bárbara).
- Cattrachas Sare Lesbikoa.

Nazioarteko erakundeak

- Nazioarteko Gurutze Gorria.
- Mundubat Honduras Fundazioa
- Oxfam Honduras.
- Peace Brigades International – Hondurasko proiektua (PBI-Honduras).
- Peace Watch Switzerland.
- Trócaire.

Hondurasko erakunde publikoak

- Kongresu Nazionalako Giza Eskubideen Batzordea: Yuri Sabas, Rafael Paredes, Rasec Tomé, Hugo Hernández, Jari Dixon.
- Giza Eskubideen Komisario Nazionalak (CONADEH): Sofía Cáceres, Sandra Flores, Ricardo López, Eugenio González, Julio Velázquez.
- Babes-sistemako Zuzendaritza Orokorra eta Justizia eta Giza Eskubide Idazkariordetza: Norma Serrato, Nora Urbina, Silvia Rodríguez.

Nazioarteko erakunde publikoak

- Espainiako Enbaxada eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia (AECID).

Nazioarteko erakundeak

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa (OACNUDH).
- OEAKo idazkari nagusiko bulegoa, Hondurasen (OAS Honduras).

Beste batzuk

- Berta Cáceres-en senideak

HONDURASEN IBILBIDEA ETA EGOERA

Testu honetan bildu dugu ordezkariari azaldu zitzairen Honduras herrialdearen egoerari eta testuinguruari buruzko informazioa.

HONDURAS HERRIALDE ARRISKUTSUENETARIKO BAT DA, GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEENTZAT

2016ko abuztuaren 19an², Michel Forst Giza Eskubideen Defendatzaileen Egoerari buruzko errelatore bereziak eta José de Jesús Orozco Henríquez Giza Eskubideen Amerika-arteko Batzordeko Giza Eskubideen Defendatzaileen Eskubideei buruzko errelatoreak batera idatzi zuten komunikatuan azaldu zuten arrisku-egoera oso kezagarria zela Hondurasen, eta Erdialdeko Amerikako herrialde hori munduko leku arriskutsuenetako bat zela giza eskubideen defentsan aritzeko.

Giza Eskubideen Amerika-arteko Batzordeak Honduras herrialdean eman du kautela-neurrien kopururik handiena, eta neurri horiek ezarrita zituzten pertsonen hilketa-tasarik handiena ere Hondurasen osatu da. 2010. eta 2016. urte bitartean 15 defendatzaile hil dituzte Hondurasen, babes-neurri horiek ezarrita eduki arren. Hilketa horietako bat Berta Cáceresena izan zen. Nazio Batuen Erakundeko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak 2016ko uztailean adierazi zuen oso larritzat jotzen zituela Hondurasko giza eskubideen defendatzaileen aurkako irainak, mehatxuak eta, batez ere, hilketa-tasak; gainera, egoera larri berean daude hango eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen defendatzaileak, herri indigenetako buruak, bai eta afrohondurastar herrietako buruak ere³». Bestalde, «oso kezagarritzat jotzen zuen herri indigenek daukaten beren lurren, etekinen eta baliabide naturalen gaineko erabakiak aske hartzeko eskubidearen babes eskasa⁴».

Europako Parlamentuak, 2016ko apirilaren 14ko ebazpenean⁵, Hondurasko giza eskubideen defendatzaileen egoerari buruz adierazi zuen herrialde horretako giza eskubideen defentsaren egoera oso kezagarria zela: giza eskubideak Hondurasen defendatzen dituztenek «abusuak, indarkeria, atxiloketa arbitrarioak eta mehatxuak era arbitrarioan jasotzen dituztelako, eta hil egiten dituztelako»⁶, eta munduko herrialde arriskutsuenetako bat da, giza eskubideen defentsa egiteko. Horrez gain, LGTTBI pertsonen aurkako indarkeria ere azpimarratu zuen, bai eta pertsona horien eskubideak defendatzen dituztenen aurkako ere. Honako datu hauek ere azpimarratu zituen, guztiz kezagarriak baitira: «1994tik hona LGTTBI taldeko 235 pertsona hil dituzte, eta 48 kasu baino ez dira auzitegietara heldu; Giza Eskubideen komisario nazionalak salatu du delituen % 92 ez direla behar bezala ikertu, eta, hartara, ebatzi gabe jarraitzen dutela⁷».

HISTORIA ETA GEOPOLITIKA

Ordezkariei labur azaldu ziguten Hondurasen azken bi mendeetan bizi den historia, zehazki, 2009ko ekainaren 28ko estatu-kolpea gertatu arte. Estatu-kolpearen ondoren azpimarratzekoak dira heriotza-eskuadroiek egin dituzten giza eskubideen urraketa larriak, Amerikako Estatu Batuetako Gobernuak 80ko hamarkadan Hondurasen eta Erdialdeko Amerikan inposatu zuen Segurtasun Nazionaleko Doktrinaren esparruan. Etapa horretan, COFADEHren erregistroen arabera, Hondurasen 200 pertsona inguru desagerrarazi dira arrazoi politikoengatik.

Estatu Batuen geopolitikak Hondurasi eragiten dio, esparru horretan sartuta dagoelako. Estatu Batuek herrialdea kontrolatzeko base militar gisa erabili zuten Honduras, Erdialdeko Amerikako gizarte-prozesuetan. Ordezkariek aurkeztu duten azterketan azpimarratzen da Hondurasko Estatuak

² CIDH eta Nazio Batuen Elkarte (2016).

³ Nazio Batuen Elkarte (2016d). 9. apartatua.

⁴ Nazio Batuen Elkarte (2016d). 11. apartatua.

⁵ Lege Biltzarra (2016).

⁶ Lege Biltzarra (2016). A apartatua.

⁷ Lege Biltzarra (2016). J apartatua.

men egin diela Estatu Batuen interesei, eta mendekotasun horrek, ondorioz, instituzioen ahulezia eragin duela, gizartearen eta politikaren ezegonkortasuna bultzatu duela (aldizkako estatu-kolpeak gertatzen dira) eta herrialdeko ekoizpen-gaitasuna murriztu duela (kontrol atzeritarraren mende dagoelako).

Estatu-kolpeen indarkeria, gainera, gero eta handiagoa da. 2009ko estatu-kolpea eman eta gero, honako aldaketa hauek gertatu dira: giza eskubideen urraketak larriagoak dira; militarren eragina handitu egin da herrialdean; erakundeek porrot egin dute; herritarren iritzia polarizatu da; pobrezia handitu da; erlijio-fundamentalismoa areagotu da, eta berekin ekarri du emakumeen aurka egitea eta sexu-aniztasunaren eta genero-identitate anitzen aurka ere egitea.

GAUR EGUNGO EGOERAREN EZAUGARRIAK

Erdialdeko Amerikaren eta Hondurasen egoerari buruzko analisia azaldu zitzaizen ordezkariari. Analisi horretan, egungo egoera azpimarratzeaz gain, egungo inguruabarrek giza eskubideak benetan baliatzeko aukeran eta giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen, kolektiboen eta komunitateen arrisku-egoeran izaten duten eragin zuzena ere nabarmendu zen. Honako gai hauek bereziki azpimarratu ziren elkarrekin, kolektiboekin eta nazioarteko organismoekin izandako bileretan:

- Hondurasko oligarkiarekin eta enpresa transnasionalekin batera ezarri den garapena bultzatzeko erauzketa-ereduak eragin zuzena izaten du herritar indigenen eta nekazarien komunitateetako eta mugimenduetako buruei egindako mehatxuetan eta hilketetan.
- Gizartea eta gizarte-gatazkak militaratu dira, eta indar hertsatzailea gizartearen eskaerei erantzuteko erabiltzen da.
- Informazio publikoa kontrolatzen da, eta hedabide-hesiak eraikitzen dira, Honduras nazioarteko eremuan ikusezin bihurtzeko. Horren bitartez, boterea duten taldeen profila gorai patzen da, eta giza eskubideen defendatzaileak estigmatizatzen dira.
- Eskubide ekonomiko eta sozialen eta politika publikoen ordez, laguntza-programak sustatzen dira, pobrezia eta berdintasunik eza finkatzeko.
- Arkitektura juridikoa osatu da, Estatuari itxura demokratikoa emateko.
- Erlijio-oinarriak erabiltzen dira, hierarkia eklesiastikoaren lankidetzarekin, botere ekonomikoa duten taldeen jarduna legitimatzeko.



Kongresu Nazionalaren sarrera, Tegucigalpa.

INDARKERIA, HONDURASEN

Hondurasko indarkeriaren kausak

Hondurasko Estatistika Institutu Nazionalaren datu ofizialen arabera, herritarren % 68 pobreak dira; eta haietako % 44, oso pobreak. Berdintasunik eza eta pribatizazioaren bidez eragin den pobrezia dira herrialdeko indarkeriaren kausa nagusiak, herritar zibilen arabera.

Estatuaren aurrekontuaren banaketan lehentasuna ematen zaio militarizazioari: segurtasun- eta defentsa-partidak % 70 igo dira; eta osasunaren, hezkuntzaren eta justiziaren aurrekontuak, ordea, izoztuta daude. Adibide moduan, ospitale-azpiegitura eskasak eta osasun-zerbitzuen pribatizazioa aipatu dira. Azken ospitale publikoa duela 40 urte eraiki zen, eta gainerako osasun-etxeak pribatuak dira.

Lan-eremuari erreparatuta, lanpostuen % 95 prekarioak dira. Soldatapeko langileen % 75ek gutxieneko soldata ere ez dute jasotzen. Hondurasko bi milioi pertsona inguruk ekonomia-sektore informalean jarduten dute, adinez txikikoak ere kontuan hartuta. Enplegurik eza edo bizirik irauteko aukera ematen duten lanposturik eza ere kezagarritzat jotzen dute; hori da, hain zuzen ere, krimen antolatuan parte hartzeko arrazoi bat.

Ordezkariei azaldu diete berdintasunik eza eta pobretzea direla gizartea kontrolatzeko estrategiak: pertsonak eta komunitateak behartzen dira, bere burua indartzeko aukerarik izan gabe, aurrera egitera.



Tegucigalpako kaleak

Hauxe dio Nazio Batuen errelatoreak judizioz kanpoko hilketei, hilketa sumarioei edo hilketa arbitrarioei buruz⁸: «[Hondurasko] indarkeria hainbat faktoreren ondorioa da, antza. Faktore horietako batzuk sistemikoak dira, eta herrialdeko mugetatik kanpoko loturak izaten dituzte: esaterako, taldeen jarduna, delinkuentzia antolatua, drogen trafikoa, armen merkataritza, ustelkeria, estortsioa, legeak ez aplikatzea, bizitzaren aurkako delituengatik kontu emateko beharrik eza; eta sakon eta sistemikoki, pobrezia, langabezia, berdintasunik eza eta herritarren aukerarik eza. Segurtasunik ezarekin batera, militarizazioa gero eta handiagoa da segurtasun publikoan, eta horrek berekin ekartzen du polizien, polizia militarren eta indar armatuen gehiegikeria, indarra erabiltzen dutenean, batzuetan delitugile antolatuekin ados jarrita».

Halaber, ordezkariiei azaldu zaie Hondurasko iparraldea eta mendebaldea narkotrafikoaren korridorean daudela, eta kokapen horrek nabarmen handitzen duela indarkeria, erakunde publikoak ahultzearekin batera. Honako faktore hauek lotuta daudela aipatu dute: narkotrafikoa; pertsonen eta armen salerosketa eta trafikoa; eta eskualdeko meatzaritza-proiektuak eta nekazaritzako monolaboreak.

Nazio Batuen Elkartearen arabera⁹, San Pedro Sula puntu nagusia bihurtu da, drogaren legez kanpoko banaketa-jardueretarako eta -estrategietarako. Delinkuentzia antolatuarekin batera, kaleko gaizkile-talde basatiak ugarituz doaz. Horren ondorioz, hiriko indarkeria eta hilketak areagotu dira, eta 2011 eta 2014 bitartean munduko hilketa-tasarik handiena Hondurasen osatu zen. Errelatoreak gaineratu zuen «marek» [...] basakeriaz jarduten dutela, eta haien mendeko auzokoen bizitza kontrolatzen dutela. Tokiko biztanleek «zergak» ordaindu behar dizkiete gaizkile-taldee, segurtasunaren truke; horri «gerra-zerga» deitzen diote.[...] Zerga ordaindu nahi ez dutenak hil ohi dituzte, eta haurrek bi aukera baino ez dituzte: gaizkile-taldeekin bat egitea edo emigratzea, eta azken erabaki horrek ere arriskuak izaten ditu. Garraiatze-sektorean jarduten duten pertsonak eta enpresako jabeak ere

⁸ Nazio Batuen Elkartea (2017a).

⁹ Nazio Batuen Elkartea (2017a). 20. eta 23. apartatuak.

antzeko egoeran daude. Gazteak drogak eta armak garraiatzera behartzen dituzte, eta gaizkiletaldeetako kideen arteko gatazketan bortxatu, torturatu eta hil egiten dituzte.

Indarkeriazko heriotzak

Ordezkariei giza hilketa-tasei buruzko datu kontraesankorrak eman zaizkie. Datu-iturriaren arabera, hilketa-tasa 59 edo 86 izan daiteke 100.000 biztanleko. Osasunaren Mundu Elkartearen estandarren arabera, giza hilketen tasa 9 da 100.000 biztanleko.

Gobernuak adierazi du giza hilketen tasa txikiagotu dela, eta nazioarteko esparruan herrialdea txalotu dutela, lorpen horrengatik. Herritar zibilek, ordea, adierazi dute jaitziera hori ez dela benetakoa, eta giza hilketei buruzko datuak biltzeko metodoari lotuta dagoela. Hil dituzten pertsonak zenbatu beharrean, egitateak zenbatzen dituzte (kontuan hartu gabe egitate batean hainbat pertsona hil ditzaketenik). Hil dituzten pertsonak zenbatzen badira, giza hilketen kopuruak gora egin du 2016an, 2015eko datuekin erkatuta. Gainera, hainbat erakundek adierazi dute Gobernuak gardentasunik gabe kudeatzen duela informazio hori. Horren harira, ordezkariak jakinarazi zitzaizkien auzitegiko medikuek jada ez dutela daturik ematen indarkeriazko heriotzei buruz.

Lurraldeetan dauden erauzketa-interesei lotutako indarkeria

Kezka adierazi dute baliabide naturalak erauzteko proiektuetan giza eskubideak era larrian urratzen direlako; bereziki, meatzaritzari eta energia ekoizteko presei buruzko proiektuetan. Hori dela eta, Honduras herrialderik arriskutsuena da, lurraldea eta ingurumena defendatzen dituztenentzat: 120 defendatzaile hil dituzte, 2010etik 2016. urtearen amaiera arte¹⁰.

Nekazarien, herritar indigenen eta garifunen komunitateek proiektu horien aurka egiten dute, arbasoen lurraldea eta ondasun erkideak defendatzeko. Salatu egin dute Hondurasko Estatuak atzerriko inbertsioen politika ezarri duela, komunitateen baimenik gabe, nahiz eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmenean aurrez kontsulta librea eta informatua nahitaez egiteko agindu. Bestalde, ustelkeria publiko eta pribatu handiak are gehiago kaltetzen du egoera. Politikako goi-kargudunek eta enpresako eliteak parte hartzen dute lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzen dituztenen aurkako errepresioan eta indarkerian.

Emakumeen aurkako indarkeria

2017ko urtariletik ekaina arte, 170 emakume baino gehiago hil dituzte, eta hilketa horien % 80 herrialdeko iparraldean gertatu dira. 60 urtetik gorako emakumeen hilketak ugaritu dira, eta hilketa guztien krudelkeria izugarri handitu da.

Ordezkariei jakinarazi zaie zigorrik gabe geratzen diren krimenen tasa ere oso handia dela. Ildo horretatik, Nazio Batuetako Giza Eskubideen Batzordeak 2017ko abuztuan adierazi zuen kezkatuta zegoela «indarkeria mota horri buruzko epaiketak eta kondenak oso urriak zirelako, eta horrek egileen zigorgabetasuna eragiten duelako¹¹». Horri buruzko informazioa ematen dutenen kriminalizazioa eta jasaten dituzten mehatxuak direla eta, ez dago estatistika-datu fidagarririk. Halaber, gaineratu dute zifrak aldatuta daudela, hauteskunde-urtean herrialdeak onera egin duela erakusteko asmoz.

Elkarteek lurraldean bertan komunitateekin egiten ari diren lana abiapuntutzat hartuta, ordezkariak jakinarazi zaie emakume elkarrizketatuen % 70ek indarkeria motaren bat jasan dutela, salaketa aurkeztu zein ez. Gainera, salatu arren, erakundeek ez dute behar bezalako laguntzarik ematen: esaterako, batzuetan gertatu da bake-epaileek salaketa ez jasotzea edo ofizioz ez jasotzea.

LGTTBI pertsonen aurkako indarkeria

Bilera gehienetan ordezkariak jakinarazi zaie LGTTBI pertsonen aurkako indarkeria oso kezkarria dela (2017ko urtariletik ekaina arte 20 gizon homosexual hil dituzte; eta 2016an, 22). Hilketa horietako asko krimen antolatuko kideek egin dituzte. Marek «herritar zaurgarritzat» hartzen dituzte,

¹⁰ Global Witness (2017).

¹¹ Nazio Batuen Elkartea (2017c). 14. apartatua.

eta drogak legez kanpo saltzeko trafikoa parte hartzen dituzte. Uko egiten badiote, indarkeria handituz doa, eta, azkenean, hil egiten dituzte. Indarkeria mota horren biktimek ezin dute salaketarik jarri, polizia krimen antolatuari eta delitugileen taldeei lotuta dagoelako. Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kasuetan ere zigorgabetasun bera egoten da.

Adinez txikien aurkako indarkeria

Ordezkariei jakinarazi zaie adinez txikien aurkako indarkeria oso handia dela. Adinez txikien hilketa-tasarik handiena Honduraskoa da (32,8 hilketa 100.000 biztanleko), Latinoamerika osoa kontuan hartuta.

Neskak eta mutilak arriskuan eta pobrezian daude, eta kriminalizazioaren, estigmatizazioaren eta indarkeriazko heriotzen biktimek dira. Gobernuak adierazi du krimenen % 40 adinez txikiek gauzatzen dutela. Fiskaltzak, ordea, adierazi du krimenen % 10 gauzatzen dutela.

Hondurasen 3,5 milioi neska eta mutila bizi dira, eta eskolara joateko adina dutenetik 1,3 milioi ez dira joaten eskolara. Neska-mutilen % 14 baino ez da joaten goi-mailako hezkuntzara. 437.000 pertsona inguruk abusu ekonomikoak jasaten dituzte, lan behartuaren bidez: eraikuntzan, petardoen fabrikazioan eta neskame zein morroi lanetan.

15 eta 25 urte bitarteko 100 emakumetik 15 haurdun daude, baina haurdunaldi gehienak sexu-abusuen ondoriozkoak dira, datu ofizialen arabera. Gobernuak jakinarazi du sentsibilizazio-kanpainak abiarazi dituela, sistema judiziala biktimei laguntzeko egokitu duela, eta adinez txikiei egindako sexu-abusuen erantzuleak epaitzen dituela.

2016an, 27.000 bidaiderik gabeko atzerritar adingabe (MENAS) identifikatu ziren: 17.000, Estatu Batuekiko mugan; eta 10.000, Mexiko herrialdeak deportatuta. Lurraldearen gaineko maren kontrola emigrazioaren arrazoi nagusietako bat da. Gaizkile-talde horiek San Pedro Sula (Cortés Departamentuko hiri administratiboa) hiriko auzoen mapa zehaztuta daukate, eta badakite zenbat biztanle bizi diren, eta zenbat gazte erreklutatu ahal dituzten. Familiek handik irteteko erabakia hartzen dute, hil ez ditzaten.

Ordezkariei jakinarazi zaie Omoa-n (Cortés Departamentuan) zentro bat eraiki dutela, itzuli diren migratzaileei arreta emateko eta, batez ere, bidaiderik gabeko atzerritar adingabeei laguntzeko. Horrekin batera jakinarazi da zentro horretan ez dagoela errehabilitazio-programarik, eta adingabeak zaintzeko zentro pedagogikoek espetxeen antza handia daukatela, erabiltzaileei ez baitzaie ematen hezkuntza-laguntzarik.

Lekuz aldaraztea

Herritarrek indarkeriaren ondorioz hartzen dute lekuz aldatzeko erabakia. Arazo hori maiz aipatu da ordezkariiei emandako azalpenetan. Landa-inguruneetako pertsona asko lekualdatzen ari dira hirietara. Erdialdeko Amerikako migrazio-iraganbidean 10 migratzailetik 7 hondurastarrak dira. Haien artean adingabeak daude, baita umetxo bat ardurapean daramatenak ere. San Pedro Sula hirira hiru edo lau hegazkin heltzen dira astero, Estatu Batuetatik deportatu dituzten pertsonekin. Airez deportatzen dituzten pertsonen gain, lurretik, Omoa udalerritik, deportatzen dituztenak ere badaude. Zehazki, Mexikoko Gobernuak itzularazten ari da bere jurisdikzioan topatzen dituen pertsonak. Gainera, Honduras eta Guatemala herrialdeen arteko muga-postuan migratzaile itzulientzako zentroa eraiki da. El Corinto deitu dute. Halaber, adierazi dute Indarkeriak eragindako Barne Lekualdaketen Unitatea sortu dela; eta ACNUR agentziak kontratatuko dituela langileak.

Nazio Batuen Elkarteko errelatore bereziak barnealdeko pertsona lekualdarazien giza eskubideei buruz esan zuenarekin bat¹², ordezkariiei jakinarazi zaie herritarrek ez dutela konfiantzarik izaten polizia-kideengan: polizia eta krimen antolatua lotuta egon daitezkeelako¹³, marek poliziaren informatzailetzat har ditzaketelako, edo poliziak gaizkile-talde horietako kideetat har ditzakeelako. Egoera horrek behartzen ditu lekuz aldatzera: ez dago babesik, jazarpena gertatzen denean; eta

¹² Nazio Batuen Elkarte (2016b). 28. apartatua.

¹³ Ikus txosten horretako atal hau: Poliziaren jarduna arazteko prozesua (*Proceso de depuración de la Policía*).

salatzearen beldur dira. Kalkulatu da indarkeria jasan duten ehun pertsonatik 80k edo 90ek ez dutela aurkeztu salaketarik.

Indarkeria horren biktimak herritar guztiak izan arren, nabarmentzekoak dira sektore edo kolektibo zehatz batzuk: bidaiderik gabeko atzerritar adingabeak, LGTTBI pertsonak, giza eskubideen defendatzaileak eta komunitateko buruak. San Pedro Sula kolusio horren adibide adierazgarria da. Hiri horretan bereziki esanguratsua da krimen antolatua lurraldearen gainean duen kontrola. Negozio guztiek estortsioa jasaten dute, eta adierazi da poliziak laguntzaile jarduten duela delitu horietan.

ERAKUNDEEN AHULEZIA ETA PORROTA

Misio osoan errepikatu da Hondurasko Estatuak erakundeen ahulezia. Hainbat kausa adierazi dituzte: lan egiteko aurrekonturik eza, borondate politikorik eza, gutxiengo ekonomiko boteretsuen interesei lehentasuna ematea (eta gutxiengo horietan politikako kide batzuk daude).

Arlo batzuetan ez dago erakunderik, eta beste batzuetan oso ahulak dira; eta Hondurasko indarkeriaren arrazoi nagusietako bat hori dela pentsatzen da. Egoera horretan herritarrek ez dute sinesten justizia-sisteman, eta beste bide batzuk bilatzen dituzte. Halakoetan, botere ekonomikoa edo botere hertsatzailea dutenek Estatu paraleloa osatzen dute, edo gobernu-egituren hutsuneak betetzen dituzte. Ordezkariei jakinarazi zaie, gauzak horrela, Estatuaren egiturak botere bortitza gauzatzen duela, eta indarkeria, arrazismoa eta bazterkeria legitimatzen dituela.

Politika publikoen ordezko laguntza

Hainbatetan ordezkariei azaldu diete politika publikoen ordez gobernuaren laguntza zehatzak ematen direla, indarkeriaren kausak jorratu gabe. Iritzien arabera, laguntza-ekintza horien bitartez gizarte-presioa eta herritarren eskaerak murriztu nahi dira, bai eta herritarren botoa bideratu ere. Ikuspegi horrek pobrezia sustarriak ezabatzeke zailtasunak areagotzen ditu.

Emakidak onartzea

Ordezkariei jakinarazi zaie Kongresuak, legegintzako funtzioa betetzeaz gain, enpresei kontratuak eta emakidak onartzeko eskumena ere baduela, enpresek inbertsio-proiektuak egin ditzaten. Kongresuak Agua Zarca presaren emakida —Berta Cáceres kasuari lotuta— onartu zuen, egun berean onartu zituen 29 emakida gehiagorekin batera. Horren aurrean, kezkarria da jardunbide horien legitimitatea; gainera, ezin da ziurtatu enpresa horiek giza eskubideak eta ingurumen eskubideak errespetatzeko betebeharra betetzerik.

Militarizazioa, interes ekonomiko pribatuak babesteko

Ordezkariei jakinarazi zaie salatu da landa-eskualdeak eta -inguruneak militarizatu izana (baita Unibertsitatea), ekintza eta akzio pribatuak babesteko eta bermatzeko. Adibide moduan aipatu da Agúan esparruan ZEDS¹⁴ edo hiri eredugarriak ezarri nahi direla. Hitzartze-mahai bat bertan finkatu da, indar militarrek daude, eta enpresa pribatuek partaidetza dute.

Ustelkeria

Ordezkariei jakinarazi zaie lotura dagoela ustelkeriaren eta giza eskubideen urraketan artean. Gainera, fiskalek ez dute gaitasunik, beren lana egiteko.

2016ko apirilean, Hondurasko Ustelkeriaren eta Zigorgabetasunaren aurkako Laguntza Misioa (MACCIH) abiarazi zen. Amerikako Estatuaren Erakundeak estatu kide batean lehenengo aldiz ezarri zuen horrelako misio bat. Hondurasko Estatuarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, honako esparru hauek landuko ditu: a) ustelkeriari aurrea hartzea eta haren aurka borrokatzea; b) zigor-justizia erreformatzea; c) politika eta hauteskundeak erreformatzea; c) segurtasun publikoa.

¹⁴<http://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-42030850>

Hondurasko Ministerio Publikoaren lankidetzarekin batera, 2017ko otsailean, Ustelkeriaren eta Zigorgabetasunaren aurkako Fiskal Unitate Berezia (UFECIC) eratu zen. Ustelkeriaren aurkako epaitegiak eratu dira, eta langileak hautatzeko protokoloak osatu. Lankidetzaren eraginkorra sustatzeko legea onartu da, eta zigorrak konmutatu ahalko dira, zigortuak Justiziari laguntzen baldin badio.

Poliziaren jarduna arazteko prozesua

Poliziak krimen antolatuekin dituen loturak direla eta, jakinarazi da Batzorde Arazlea osatu dela. Egun arte, 3.000 kasu baietsi ditu batzorde horrek. Hondurasko Ustelkeriaren eta Zigorgabetasunaren aurkako Laguntza Misioak prozesu hori egiaztatuko du. Egun arte, organismo horrek 2012. eta 2014. urte bitarteko arazte-prozesua aztertu du. 2017an ere azterketa hori egingo dute.

Prozesua amaitu gabe utzi dute, kidegotik bota ziren pertsonen jarraipena ez baita egin, eta zigorgabetasunak eragin diolako. 100 kasu izan arren, bost baino ez dira heldu epaitegietara, eta ezin da jakin bost kasu horietatik zenbatetan kondena-epaia ezarriko den.

Botere-banaketarik eza: Segurtasun eta Defentsa Kontseilu Nazionala

Kezkagarritzat jotzen dute Gobernuak boterea «nagusikeriaz eta era hertsatzailean» erabiltzeari. 2009ko estatu-kolpea eta gero, Gobernuaren interesei edo elite politiko eta ekonomikoen interesei eragiten dieten iritzi politiko edo herritarren adierazpen guztiak gogor erreprimitzen dira. Kontrol hori Gobernuaren egitura guztietan egiten da: egitura betearazlean, legeak egiteko egiturari eta egitura judizialean. Hori da, hain zuzen ere, Hondurasko erakunde publikoen ahuleziaren kausa nagusietako bat.



Kongresu Nazionaleko Giza Eskubideen Batzordeko kideekin egindako bilera.

Nazioarteko akordioak betetzea

Batetik, salatu egiten da Gobernuak ez dituela bete nazioarteko organismoekin eta erakundeekin sinatu zituen konpromisoak. Aitzitik, Gobernuak dio konpromiso horietako asko bete dituela.

Nazioarteko gomendioei erreparatuta, Gomendioen Jarraipena egiteko Hondurasko Sistema (SIMOREH¹⁵) ezarri da, eta Giza Eskubide eta Justizia Idazkaritzari atxikita dago. Informatika-tresna da, eta honako lan hauek egiten ditu: Nazio Batuen Erakundeko eta Amerikako Estatuaren Erakundeko organoek eta giza eskubideen aldeko prozedura bereziek Hondurasko Estatuari egin dizkieten nazioarteko gomendioak ordenatzea, sailkatzea, haien jarraipena egitea eta gainbegiratzea. Sistema horrek erakusten du ez dela egin gomendioen jarraipenik.

¹⁵SIMOREH sistemaren webgunea: <https://simoreh.sdhjd.gob.hn>

2017ko uztailearen 5ean eta 6an, ordezkariak Hondurasen heldu baino egun bat lehenago, Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordearen aurrean Honduras agertu zen, Genevan. 2017ko abuztuaren 22an, batzorde horrek «Hondurasi buruzko aldizkako bigarren txostenaren amaierako oharra» (CCPR/C/HND/CO/2)¹⁶ egin zituen; eta emandako gomendioak bertan jasota daude.

Bizitzaren aurkako Delituen eta Feminizidioaren aurkako Unitatea

Ordezkariei azaldu zaie Bizitzaren aurkako Delituen eta Feminizidioaren aurkako Unitatea osatu dela, eta Krimen Ikerketarako Zuzendaritzari (DIC) atxikita dagoela. Unitate horren sorrera ontzat eman da, baina aldi berean jakinarazi da unitate horrek oraindik ez duela aurrekonturik.

Hondurasko erakundeekiko mesfidantza

Ordezkariei jakinarazi zaie haustura dagoela Gobernuaren eta gizarte zibilaren artean. Herritar zibilek ez daukate konfiantzarik Gobernuarengan, eta Gobernuak ez du tarterik zabaltzen elkarrekin hitz egiteko. Lan-eremu komun batzuk egon arren, Gobernuak kontrolatzen ditu, eta bertan ezin dira jorratu herritar zibilek lehenesten dituzten gaiak.

Adierazi da erakundeen eta gizarte zibilaren artean kasu horien jarraipena eta egiaztapena egiteko artikulazio bat eraiki behar dela. Artikulazio horretan ikerketa sakonak egin beharko lirateke, partzialtasunik gabe. Hala eta guztiz, ez dago konfiantzarik Hondurasko erakundeetan, erakundeak sektore ekonomikoari eta kriminalei lotuta daudelako, eta defendatzaileen eta haien kolektiboen jardunak sektore horien interesak oztokatzen dituelako. Mesfidantza eta beldur horren froga da erasoak jasaten dituzten 10 pertsona defendatzailetik 8 pertsonak salaketarik ez jartzea.

Ordezkariei adierazi zaie Kongresuak ez duela biderik zabaltzen, herritarrek eta gizarte zibilak parte har dezaten.

Hauteskunde-urtea: berriro hautatzea

Presidentea, diputatuak eta udal-korporazioak hurrengo hauteskunde orokorretan hautatuko dira, eta panorama iluna azaldu zaie ordezkariari. Bi elementu nagusitu dira azterketan: presidentea berriro hautatzea, Konstituzioaren kontra; eta oposizioan artikulazio-gune bat sortzea. Horren harira, aipatu da estatuaren botere-banaketarik eza eta botereak Gobernuak zentralizatuta eta kontrolatuta edukitzea. Hiru estatu-kolpe azaldu dituzte: Gobernuarena, 2009an; Judiziala (magistratuak kargutik kentzea) eta konstituzionala (berrautaketa). Hondurasen debekatuta dago berrautatzea (horrela justifikatu zen Zelaya-ren aurkako 2009ko estatu-kolpea), baina, gaur egun, Justizia Gorte Gorenak beste era batean interpretatu du Konstituzioa, eta berrautatzeko aukera ematen du. Salatu egin da gaur egungo Gobernuak sistema judiziala eta hedabideen sistema kontrolatzen dituela.

Ordezkariei jakinarazi zaie oposizioa artikulatzeko guneak sortu direla, baina kezka larria adierazi da gune horien arrisku-egoerari buruz. Salatu egin da presidentetzak bere jardunetan eta jokabideetan etsaitzat hartzen dituela gaur egungo Gobernu eta presidentea defendatzen ez dituzten guztiak.

Marek lurraldea kontrolatzea

Ordezkariei azaldu diete herritarrak kezkatuta daudela gaizkile-taldeek lurraldea kontrolatzen dutelako. Bereziki nabarmendu dira Cortés Departamentuko San Pedro Sula hiriko koloniak (auzoak), talde horiek bertan Estatu ordezkatzen dutelako. Honela jarduten dutela jakinarazi da: herritarrei estortsioa egiten diete, «segurtasuna»ren truke. Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoak ez dira lurralde horietan sartzen; eta, sartu nahi dutenean, talde horietako buruei baimena eskatzen diete. Buru horietako batzuek espetxetik ere agintzen dute. Herritarren aurkako lurralde-kontrol eta indarkeria horiek dira herritarrak lekuz aldarazten dituzten faktore nagusiak.

¹⁶ Bilera horretako txostenak webgune honetan bilduta daude:

http://tbinternet.ohchr.org/_layouts/treatybodyexternal/SessionDetails1.aspx?SessionID=1119&Lang=sp

Mugikortasun askea mugatzea eta pribatizazioa

Salatu egin da herrialdearen iparraldea eta Tegucigalpa lotzen dituzten errepide guztiak pribatizatu direla (ordainketa zuzena eskatzen da), eta ez dagoela aukerako biderik. Hori oztopo larria izaten da herritarrak libre mugitu daitezzen.

Espetxe-sistema

Kezkagarriak dira Hondurasko espetxeen baldintza prekarioak. Adibide moduan, San Pedro Sula hiriko espetxea aipatu da: 800 pertsonako edukiera du, eta 3.200 daude.

POLITIKAN PARTE HARTZEA

Emakumeak

Ordezkariei azaldu diete hauteskunde-zerrenden goiko postuetan gizonak daudela. Emakumeek aukera txikiagoak izaten dituzte politikan alderdien bidez parte hartzeko eta, ondorioz, Gobernuaren erantzukizun-postuetara heltzeko. Emakumeei parte hartzeko aukera ematen zaie non eta botere-taldeek garrantzi txikikotzat jotzen dituzten eremuetan. Adibidez, botere-taldeek ustez, genero-politikak eta giza eskubideak ez dira oso garrantzitsuak. Hona hemen beste adibide bat: Genero Batzordeko kide guztiak emakumeak dira; eta, Segurtasun Batzordeko kide guztiak, gizonak.

LGTTBI pertsonak

Aurrerapen gisa aipatu da gay, lesbiana edo transexualak diren politikariek modu irekian parte hartzen dutela, eta jendaurrean erakutsi dutela beren sexu-aukera eta genero-identitatea zeintzuk diren.

LEGEGINTZAKO ESPARRUA

Legegintzako esparrua askotan hartu da hizpide bileretan, eta legeen onarpena eta ezarpena aipatu dira, bereziki. Kezka larria adierazi da legeak herritarrei parte hartzeko aukerarik eman gabe onartzen direlako, eta beste lege batzuk era berean aldatzen direlako, nahiz eta legeok giza eskubideen defendatzaileen eta herritarren eskubideak urratu.

Giza Eskubideen Defendatzaileak, Kazetariak, Gizarte-komunikatzaileak eta Justizia-operadoreak babesteko Legea

Misioaren esparruan nabarmentzekoa da Babes Legearen onarpena. Ordezkariei legeari buruzko hainbat iritzi helarazi zaie. Oro har, ontzat hartzen da babeserako esparru juridikoa izatea; baina, aldi berean, nola ezarriko den zalantza jarri da. Besteak beste, honako kritika hauek adierazi dira: Gobernuak ez ditu giza eskubideen Batzordearekin, eta batzordeak ez du lege horren ezarpenari buruzko txostenik jaso; poliziak eta armadak parte hartuko dute Babes Kontseilu Nazionalean, eta babesneurrietan polizien ikuspegia kontuan hartuko da; babesa laguntza bidez emango da, baina erasoaren gainean ez da ikerketarik edo epaiketarik egingo; lurra eta lurraldea defendatzen dituzten pertsonen zailtasun handiak izango dituzte babesa lortzeko.

Zigor Kodearen Erreforma

Zigor Kodearen erreforma dela eta, hainbat kezka eta kritika adierazi dira:

- Kasu guztietan haurdunaldia borondatez eteteagatik 20 urteko espetxe-zigorra ezartzen da.
- Honako figura hauek erabiltzen dituzte giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak eta, besteak beste, lurra eta lurraldea defendatzen dituztenak eta ikasleen mugimendua kriminalizatzeko eta epaitzeko: sedizioa, terrorismoa eta usurpazioa.
- «Gorrotokrimenak» jada ez daude delitu gisa tipifikaturik; eta hori atzerapausoa da LGTTBI pertsonen eskubideen defentsan.

Espainiako enbaxadak gai horretako aholkularitza tekniko eman zion Hondurasko Gobernuari, Hondurasen. Bi urte eta gero, enbaxadak laguntza tekniko emateari utzi dio.

Aurretiko Kontsulta Aske eta Informatuaren Legea¹⁷

Kontsulta Legea egiteko eta agian onartzeko prozesuak polemika handia sortu du. Nabarmentzekoak dira honako kezka hauek:

- Lege horretan ezartzen da Hondurasko Estatuak lurraldearen definizioa mugatzeko azken erabakia edukitzea, beto-eskubidea ezarrita.
- Ez dago segurtasun-baldintzarik, ezta bermerik ere, komunitate indigenek, afrikar ondorengoek komunitateek eta nekazarien komunitateek lurraldeari buruzko erabakia aske eta arriskurik gabe adierazi ahal dezaten¹⁸.
- Prozesua aurrera doa komunitateen parte-hartze eraginkor eta segururik bermatu gabe; gainera, legea ahalik eta lasterren onartu nahi dute, eta presio horrek gatazkak sortzen ditu. Horrez gain, ez zaie lehentasunik ematen herrien eskubideei, baizik eta lurraldeetako baliabideen ustiapenari.

Hondurasko Gobernuari eskatzen zaio, elkarrizketa librea eta segurua komunitateei ziurtatuko badie, borondatea erakutsi behar duela komunitateek inbertsio-proiektuen eta baliabide-ustiapenaren ondorioz jasotzen dituzten mehatxuei eta erasoei erantzuteko.

Komunikazio Pribatuaren Esku hartzeari buruzko Lege Berezia

Salatu egin da lege horrek adierazpen-askatasunerako eskubidea larri murriztea eta giza eskubideen defentsan aritzeko lana ere nabarmen kaltetzea: Defentsa eta Segurtasun Kontseilu Nazionaletik agindu ahal baitute, agindu judizialik gabe, giza eskubideen defendatzaileen telefono mugikorretan, posta elektroniketan eta gizarte-sareetako profiletan esku hartzeko.

Aldi berean, giza eskubideen urraketak ezabatzea eragozten duten eta zigorgabetasuna handitzen duten legeak eztabaidatzeko aukerarik eman gabe onartzen dira: esaterako, kazetariei lege baten bidez debekatzen zaie Gobernuaren aurkako kritikak adieraztea, terrorismoa goraipatzea leporatzeko mehatxua eginda. Azaldukoaren arabera, azken lege hori indargabetzen saiatu arren, ez dute izan arrakastarik.

Segurtasun eta Defentsa Nazionalari lotutako Dokumentu Publikoak sailkatzeko Legea

Sekretutasun Legea (*Ley de Secretividad*) esaten zaio, eta ordezkariari adierazi zaie lege hori oztopo handia izango dela herritarrek informazio publikoa eskuratu ahal izateko. Inguruabar horrek giza eskubideen urraketan zigorgabetasuna areagotzen du, giza eskubideen urraketak ikertzeko eta epaitzeko informazio garrantzitsua lortzea oztopatzen duelako. MACCIH misioak eta OACNUDH batzordeak jendaurrean adierazi dituzte lege horri buruzko kritikak.

Gardentasunaren eta Informazio Publikorako Sarbidearen Legea

Gardentasun Legeak agintzen du Kongresuan jorratzen diren ekimenak Kongresuaren webgunean argitaratzeko; errealitatean, ordea, webgune horrek ez dauka edukirik, eta joera horrek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea oztopatzen du.

Inteligentzia Nazionalaren Legea

Lege horrek ezartzen du Ikerketa eta Inteligentzia Zuzendaritza Nazionalaren oinarriak, antolaketa, funtzioak, koordinazioa eta kontrola arautzen dituen esparru juridikoa. Legearen 2. artikuluan arabera, hauxe da haren xedea: ikerketa eta inteligentzia estrategikorako jarduerak egitea (...); konstituzio-ordenaren aurkako barneko eta kanpoko mehatxuei aurre egitea eta mehatxuok

¹⁷Ikus, halaber: *Observaciones adicionales de la Relatora Especial sobre los derechos de los pueblos indígenas sobre el proceso de regulación de la consulta previa en Honduras*.

<http://unsr.vtaulicorpuz.org/site/images/docs/special/2017-06-09-honduras-unsr-additional-observations.pdf>

¹⁸ Lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzeagatik hiltzen dituzten pertsonen tasarik handiena Honduraskoa da, mundu osoan.

konpentsatzea; eta Defentsa eta Segurtasun Kontseilu Nazionalak defentsaren eta segurtasunaren arloan ezartzen dituen politika publikoak betearaztea. Ordezkariei azaldu zaie kezkarria dela zuzendaritza hori militar erretiratuek osatuta egotea.

Ordukako Enpleguaren Legea

2014az geroztik indarrean dago, eta lege horrek berekin ekarri du laneko ezegonkortasuna instituzionala izatea. Egunez eta ordutegiko antolatutako aldi baterako lana sustatzen du; hortaz, laneko egonkortasuna murriztu eta mugatu du. Gainera, laneko egonkortasunaren printzipioa itxuragabetu da, eta printzipio horretatik sortzen dira gainerako eskubideak. Ondorioen artean, honako hauek nabarmentzekoak dira: soldatak jaistea, ezinezkoa izatea lan-baldintza duinak lortzea, sindikatuak eratzeko eskubidea oztopatzea eta bermerik gabeko kaleratzea erraztea, besteak beste. Pobrezia amaitu ahal izateko oztopo nagusia lege hori da.

Elikadura-burujabetzarako eta Landa-garapenerako Lege-proposamena

Ordezkariei azaldu zaie La Vía Campesina mugimenduak Elikadura-burujabetzarako eta Landa-garapenerako Lege-proposamena aurkeztu duela Kongresu Nazionalean. Lege-proposamenaren helburua giza eskubideak, herriak, lurra eta lurraldea errespetuz eta genero-ekitatez garatzea da. Proposamenak ez du erantzunik jaso, eta ez da urratsik egin proposamena eztabaidatzeko.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA GIZA ESKUBIDEAK

Nazio Batuen Erakundearen eta Giza Eskubideen Amerika-arteko Batzordearen ustez¹⁹, Honduras munduko herrialde arriskutsuenetako bat da giza eskubideak defendatzen dituztenentzat; Global Witness erakundearen arabera²⁰, herrialde arriskutsuena da, lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzen dituztenentzat; Giza Eskubideen Amerika-arteko Batzordearen (CIDHren) babes-neurriak ezarrita eduki arren, hil dituzten pertsonen tasarik handiena Honduraskoa da (14 pertsona hil dituzte, 2014tik 2016a arte²¹).

* 2009ko estatu-kolpetik aurrera sortu zen erresistentzia eta artikulazioa indarkeriaz ezabatu dituzte. Gizarte zibilaren batasuna apurtu da, eta hainbat sektore zatikatu dira, 2009ko estatu-kolpea eta gero hasi ziren herriko sektoreen eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako errepresio-ekintzak direla eta. Salatu egin da interes ekonomikoen eta politikoen aurkako oposizio oro kriminalizazioaren, judizializazioaren eta hilketen bidez suntsitzen dela.



Radio Progreso irrati-etxearekin, ERIC taldearekin eta INHESCOREkin izandako bilera, San Pedro Sulan.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN ARRISKUAK ETA HAI EI JAZARTZEKO MODUAK

Hilketak

Salatu egin da gizarte- eta giza eskubideen erakundeetako zuzendariak, buruak eta aktibistak, Giza Eskubideen Amerika-arteko Batzordearen babes-neurriak ezarrita eduki arren, eta Hondurasko Gobernuak neurri horiek nahitaez betetzeko agindua eduki arren, hil egin dituztela. Horrekin batera, zigorgabetasun handia ere salatu da.

¹⁹ CIDH eta Nazio Batuen Elkarte (2016).

²⁰ Global Witness (2017).

²¹ CIPRODEH (2016).

2001etik hona indarkeriaz 70 kazetari hil dituzte (kasu horietako 6 kasutan baino ez da kondena-epai irmorik ezarri). Justizia operadoreen sektorean, 150 hilketa egin dira azken urteotan; eta % 90eko zigorgabetasuna dago. Horrez gain, ordezkariak jakinarazi zaie azken urteotan, 200 LGTTBI pertsona baino gehiago hil dituztela.



Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordearen Bulegoa (COFADEH)

Kezkagarritzat jotzen dute adinez txikiak erailteza eta irakasleei zein ikasleei jazartzea. Jakinarazi da emakumezko irakasle eta sindikatu-kide bat hil zutela 2015ean, CIDHren kautela-neurriak ezarrita bazituen ere. Ikasle kriminalizatu baten aita hil zuten 2017an (ordezkariak ikasle horrekin bildu ziren). Ordezkariak Hondurasera heldu baino egun bat lehenago, Soziologiako ikasle-lider bat hil zuten.

Estigmatizazioa eta kriminalizazioa

Salatu egin dira giza eskubideen defendatzaileen, haien kolektiboen eta komunitateen estigmatizazioa eta kriminalizazioa; horiek dira giza eskubideen defentsari lotutako sektore guztien aurkako errepresio-jokabide hedatuenetako batzuk, hain zuzen ere (gizarte-eragileen, gobernu-eragileen zein nazioarteko eragileen aurka egiten da).

Estigmatizazio-kanpainen imajinarioa sortu nahi dute herritarrengan; imajinario horretan giza eskubideen defendatzaileak delitugile edo herrialdearen «garapen»aren aurkako pertsona gisa irudikatzen dira. Honako hauek dira kanpaina horien helburuak: pertsona horiek egiten duten lana legez kanpokotzat jotzea, haien prozesuei laguntzeko sare soziala haustea eta haien erasoan aurrean axolagabetasunez jokatzeko.

Hainbat topagunetan adierazi da difamazioa eta legitimazioa kentzeko eragile nagusiak hondurastar gobernuak eta botere politikoko eta ekonomikoko sektoreak direla. CIDHeK Hondurasi buruzko txostenean²² adierazi zuen erakunde horrek bildutako informazioari buruzko kezka: «iradokitzen da agintari batzuek giza eskubideen defendatzaileen lana legez kanpokotzat jotzen dutela, eta ez dutela onartzen. Horrek eta justizia-erantzunik ezak giro kaltegarria sortzen dute giza eskubideen aldeko jarduerak garatzeko. Era berean, herritarren iritzia polarizatu da, giza eskubideak defendatzeko erakundeek betetzen duten eginkizunari buruz. [...] Giza eskubideen defendatzaileen jarduna babestu beharrean, gerta liteke justizia haien kontra jardutea». Ildo horretatik, hondurastar eta nazioarteko erakundeek ordezkariak azaldu diete Gobernuak «hondurastar gaiztotzat eta Hondurasen zein haren garapenaren aurkako kidetzat» jotzen dituela atzerrira bidaiatu eta Hondurasen gertatzen ari diren giza eskubideen urraketen berri ematen duten pertsonak. Gobernuaren ustez, «pertsona horiek nazioartera joaten dira herrialdearen irudi txarra ematera». Salatu egin da Hondurasko Estatuak deizentro bat eta gizarte-sareetan zabalitzen dituen mezuak estigmatizazio tresna gisa baliatzea.

Kriminalizazio adibide gisa, agintariak ikasleen mugimenduari egiten dizkieten erasoak aipatu dira. Era berean, nazioarteko organismoen (Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoaren), nazioarteko erakundeen (Global Witness-en) eta estatu-eragileen (CONADEH-en) aurkako erasoak ere egiten dituzte. CONADEH zentroari leporatzen zaio «delitugileak babestea», Unibertsitatean jarduten duelako.

²² CIDH (2015).

Judizializazioa

Adierazi da estigmatizazio-kasu batzuk epaitegietako auzi bilakatu direla. Zigor Kodea hainbat aldiz aldatu eta gero, zigor mota berriak ezarri dira, eta herritarren protestak edo giza eskubideen aldarrikapenak delitutzat hartzen dira. Horren adibide adierazgarria Hezkuntza Publikoa defendatzen duten ikasleen judizializazioa da. Horrez gain, ikasleen mugimendurekin bat egiten duten pertsona eta kolektibo guztiak legez kanpokotzat jo, eta delitugiletzat hartzen dituzte.

Politika eta ekonomia kontrolatzeko mekanismoak

Nahitaez bete behar diren politika- eta ekonomia-mekanismoak ezarrita, erakundeen eta komunitateen funtzionamendua era larrian mugatzen ari da. Besteak beste, erakundeak erregistratzeko sistemak prozesuen burokrasia handitzen du, eta prozedurak atzeratzen ditu, erregimenaren aurkakotzat hartzen diren pertsonen lana oztopatzeko asmoz. Besteak beste, hori gertatzen ari da COPINH kontseiluarekin.

Administrazio-erasoak

Erakundeen eta mugimenduen egitura ezabatzen saiatzeko estrategia nagusietako bat administrazio-erasoa da: ez zaie ematen aholkulari juridikorik edukitzeko aukera; eta neurriz kanpoko zergak ordaintzeko betebeharra ezartzen zaie, jardueran aritu nahi badute. Finantza-egitura bat eskatzen duen zerga-sistema bat ezarri da, komunitateko lana mugatzeko. Berez, sistema horrek gizarte-erakundeen, erakunde sindikalen eta nekazarien erakundeen finantzak itotzen ditu.

Komunikazioetan esku hartzea

Salatu egin da agindu judizialen beharrik gabe komunikazioetan esku hartzea legezkoa izatea. Defendatzaile askoren telefonoetan eta posta elektronikoetan esku hartu dute. Gainera, aipatutako dei-zentro horren bidez (*call center*), gizarte-sareetan dituzten kontuak ere kontrolatzen dituzte.

Zigorgabetasuna

Ordezkariekin bildu diren eragile guztiek aipatu dute zigorgabetasuna oso handia dela giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoetan, hau da, defendatzaileen giza eskubideak zapaldu eta urratzen dituztenean. Ez dira ikertu lurra eta lurraldea defendatzen dituzten nekazarien, gazteen eta LGTTBI pertsonen aurkako indarkeria tartean duten kasu ugari.

Nazio Batuen Elkarrekin adierazi du zigorgabetasuna eragiten duten arrazoi nagusietako bat justizia-operadoreen kontrako erasoak dela²³. Erakunde horrek bildu dituen datuen arabera: «justizia-operadoreei (abokatuei eta botere judizialeko kideei, besteak beste) mehatxu edota eraso egiten diete, bai eta hil ere, daukaten lanbidearengatik. [...] 2009tik 2015a arte 5 fiskal hil zituzten». Besteak beste, narkotrafikoaren, dirua zuritzearen, bizitzaren kontrako delituen aurkako borrokan eta ingurumena babesteko borrokan ari ziren goi-kargudunak hil dituzte. Denbora-tarte berean, «hamabi epaile» eta «[...] 96 abokatu hil zituzten». Nazio Batzuen Elkarrekin honako ondorio hauek atera ditu: «erasoek eta erasoen aurreko zigorgabetasunak disuasio-eragina izaten dute epaileengan; hortaz, litekeena da epailetzako kideak errepresalien beldur izatea eta kasu arriskutsuak ikertzeko eta ebazteko oso prest ez egotea; horrela, zigorgabetasun-patroiak birstortzen dira, beste delitu batzuk zehatzen dira, eta herritarrek konfiantza galtzen dute sistema judizialean». Eta hauxe gaineratu du: «abokatuek eginkizun handia daukate giza eskubideen defentsan eta zuzenbide-estatua sendotzeko prozesuan; hartara, epaile-lanarengatik jazartzen zaienean, zigorgabetasuna bultzatzen da».

²³ Nazio Batuen Elkarrekin (2015a). 48., 49., 50. eta 51. apartatuak.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAKO SEKTOREAK

Giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeak

Haiek jasaten dituzten indarkeriazko egoerak eta bizipenak ez dira garrantzitsutzat jotzen; hartara, informazio-bilketa ez da behar bezala egiten, eta ez da ematen egoera eta eraso horren berri. Gainera, defendatzaile feministak izanik, are handiagoak dira estigmatizazioa eta kriminalizazioa.

Emakumezko defendatzaileek babes-neurri gutxiago eskatzen dituzte, ez baitute konfiantzarik hondurastar erakundeetan; dena den, neurriok ez daude egokituta emakumeen beharren arabera.

Lekualdaketa behartuetan edo erbesteratzeko kasuetan, horri gehitzen zaio familia eta ardurapean dituzten pertsonak zaintzeko erantzukizuna.

Ikasle-mugimenduak

Ordezkariei adierazi zaie hurrekin eta gazteekin gertatzen ari dena salatzea arriskutsua dela Hondurasen, Estatuaren datuen errepikatze hutsa ere arriskutsua izan daitekeela. Bigarren mailako ikasketetako eta unibertsitateko ikasleak desagerrarazten dituzte, eta askotan hiltzen dituzte; baita ikasleen senideak ere. Hezkuntzarako eskubidearen aldekoek difamazioa, kriminalizazioa eta judizializazioa jasaten dituzte.

Unibertsitateko Ikasleen Mugimenduak (MEU) hauxe eskatzen du: aldaketak egitea, ikasleek unibertsitate-gobernuan parte hartzeko aukera izan dezaten; ekipamendua eta laborategiak edukitzea, kalitatezko prestakuntza sustatzeko. Julieta Castellanos errektoreak eskatuta, Estatuako Segurtasun Indarrek mobilizazioak zapaltzen dituzte.

Gainera, Justizia manipulatu da, unibertsitate-ikasleak kriminalizatzeko eta epaitegietara eramateko. 27 gazteri leporatu dizkiete ondasun komun bat usurpatzea, askatasunez gabetzea eta Estatuaren jabetza kaltetzea. Azken urteotan 100 ikasleren baino ikasle gehiagoren aurkako akusazioak aurkeztu dira. Epaitzen ari diren 3 ikasleri hiru eta bost urte arteko espetxe-zigorra eskatzen zaie gutxienez.

Unibertsitate-agintariak difamatzen dituzte unibertsitatean jarduten duten guztiak: pertsonak, gizarte-erakundeak, nazioarteko erakundeak eta organismoak, bai eta NBE ere.



UNAH, Tegucigalpa.

Ikasleen gose-greba, Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoan

Ordezkarien bisitaldian, 24 egun irauten zuen ikasleek deitutako gose-grebak; horren bitartez, unibertsitate-agintarien indarkeriazko erantzuna salatu eta hezkuntza publikoa defendatu nahi zuten. Ordezkariei jakinarazi zaie Hondurasko biztanleen % 2 baino ezin dela unibertsitatara iritsi. Honako hiru aldarrikapen nagusi hauek egin ziren gose-greban:

- a) Ikasleen aurkako kriminalizazioa bertan behera uztea. 20 ikasle epaiketaren zain daude; 3 ikasleri hiru eta bost urte bitarteko espetxe-zigorra ezarri zaie; ikasle batzuek herrialdetik irten behar izan dute, gizarte-protestei lotutako mehatxuak jaso dituztelako.

- b) Honako hilketa hauek salatzea: Luis Joel Riverarena, Soziologiako ikaslea eta Soziologiako Ikasleen Elkarteko Zuzendaritza Batzarreko kidea, uztailearen 12an erailda; eta Roberto Gómez, epaitu den ikasle baten aita, ekainaren 23an erailda.
- c) Julieta Castellanos UNAHeko errektorearen dimisioa eskatzea.

Irakasleen eskola

Errepresioaren ondorioz, azken urteotan 20 maisu eta andereño hil dituzte; eta, gaur egun, administrazio-prozedurak erabiltzen ari dira, talde-buruei jazartzeko.

Bigarren mailako ikasleak

Ez da ikerketarik hasi giza eskubideen aldeko erakundeek dokumentatu dituzten bigarren mailako ikasleen hilketen gainean, eta ez da babes-neurririk ezarri. Hezkuntza-zentroak militatu dituzte, hilketa horiek zergatik gertatu diren aztertu gabe, eta ez da aztertu gaizkile-taldeek («marek») ikasleak behartzeko erabiltzen dituzten ereduak buruzko txostena. Eraso horiek salatzen dituztenek, gainera, mehatxuak jasotzen dituzte.

Lurraren, lurraldearen eta ingurumenaren defendatzaileak

Txosten honen hitzaurrean jaso den bezala, Honduras hartzen da munduko herrialderik arriskutsuentzat; behintzat, ingurumena, lurraldea eta guztion ondasunak (lurra, ura, ibaiak eta basoak) defendatzen dituzten pertsonentzat. Ildo horretatik jakinarazi da 2009ko estatu-kolpetik aurrera era esponentzian igo direla erauzketa-enpresei egin zaizkien lur-emakidak. Adibide moduan, Santa Barbara Departamentua aipatu da: enpresa hidroelektrikoei 30 ibai baino gehiago eman zaizkie, eta Erdialdeko Amerikako meategi zaharrenak Yojoa aintzira kutsatzen du, eta laku horretako ura da Hondurasko ur gez bakarra.

Aspaldiko tituluak zituzten komunitate indigenen lurraldeak ere enpresei eman dizkiete, nahiz eta, nazioarteko arautegiaren arabera, aurretiko kontsulta egiteko agindua bete beharko zuten. Horrekin batera, behatu eta salatu egiten da enpresen interesen aurka egiten duten pertsonen eta giza eskubideak eta komunitateak defendatzen dituzten pertsonen gaineko errepresioa eta jazarpena handitu direla. Salatu egiten da, indarra eta indarkeria baliatuz, pertsonen sistematikoki jazartzen zaiela eta lurraldetik joatera behartzen dituztela. Ordezkariei azaldu zaie, egun zehatzik aipatu gabe, 300 nekazari inguru hil dituztela, eta, gutxi gorabehera, 5.000 pertsona espetxean daudela, edo espetxearen ordezkari neurriak betetzen ari direla (haietako 1.700 emakumeak dira).

Sexu- eta genero-aniztasuna

LGTTBI pertsonen egoera oso arriskutsua da, eta herrialdean indarkeria-tasarik handiena jasaten dute. Sexu- eta genero-aukera anitzen eskubideak defendatzen dituzten pertsonen lan hori egitegatik jazartzen zaie, baina, horrez gain, lesbianen, homosexualen eta transexualen aurkako egitateak ere jasaten dituzte.

Jakinarazi da indarkeria-maila nabarmen igo dela 2009ko estatu-kolpetik aurrera. Honako arrazoi hauek aipatzen dira:

- LGTTBI elkarteak egituratu ziren, eta protagonismoa bereganatu zuten estatu-kolpearen salaketan.
- Narkotrafikoari lotutako delinkuentzia-taldeek poliziarekin batera jarduten dute, eta LGTTBI pertsonak behartzen dituzte estupefazianteak saltzera; torturatzeko eta hiltzeko mehatxua egiten diete, agindua bete ezean.
- Prostituzioan jarduten duten pertsonen isilpeko informazioa dute botere politikoa eta ekonomikoa dituzten pertsonen buruz, prostituzio-zerbitzuak erabiltzen dituztelako.

Indarkeria hori dela eta, LGTTBI pertsona askok herrialdetik irtetea erabaki dute, beren burua babesteko neurri gisa. Ordezkariei egoera kezagarri hau azaldu zaie: Estatu Espainolean hainbat asilo-eskaera ukatzen dira; edo, ebazpena eman gabe, atzeratu egiten dira.

Sindikalistak

Salatu egin da Donatilo Jiménez desagerrarazi zutela. Atlantikoaren Itsasertzeko Eskualde Unibertsitate Zentroan —CURLA, Centro Universitario Regional del Litoral Atlántico— jarduten zuen, eta han desagerrarazi zuten 2015eko apirilean. Horrekin batera, Héctor Motiño sindikatu-kidea 2015eko ekainean erail izana salatu da; Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoko Langileen Sindikatuko kidea zen (SITRAUNAH).

Kazetariak eta gizarte-komunikatzaileak

Komunitateko irrati-etxeei eta hedabide alternatiboei eraso egiten zaie, komunikazioa eta informazioa eskuratzea oztopatzeko kontrol neurri gisa: kideei heriotza-mehatxuak bidaltzen zaizkie, jazarri egiten zaie eta, besteak beste, ekipo teknikoak apurtzen zaizkie. Dokumentatuta dago 2001etik aurrera, gutxienez, 70 kazetari hil dituztela.

Nazioarteko erakundeei egindako erasoak

Hondurasko Gobernuak zuzentzen dituen kontsulta-prozesuak ikuspegi kritikoz ikusten dituzten erakundeei ez zaie egiten herritarren parte hartzeko prozesuetarako gonbidapena, eta haien iritzia ez da kontuan hartzen. Horrez gain, kontrol-mekanismoak eta burokrazia-prozesuak ezartzen zaizkie, haien jarduna oztopatzeko.

Lurraldearen gaineko gatazkak gertatzen ari diren eremuetan arriskutsuagoa da erakunde horien egoera; bereziki, enpresa hidroelektrikoek jarduten duten eremuetan. Lekuan bertan mehatxuak jaso dituzte hainbat taldetako kideek. Erakundeek difamazioak jasotzen dituzte, laguntza-lana egiteagatik. Difamazioa legitimazioa kentzeko kanpaina publikoen bidez egiten da, hedabideetan eta gizarte-sareetan. Horrek haien lana oztopatzen du, eta jazarpena zein erasoak jasotzeko arriskua handitzen du. Global Witness kasua aipatu da: 2017ko urtarrilaren 28an, Hondurasko Gobernuak difamazio- eta kriminalizazio-kanpaina abiarazi zuen hainbat erakundetako kideen aurka. Hona hemen erakundeok: Bakearen aldeko lenka mugimendu indigena independentea (Movimiento Indígena Lenca Independiente de la Paz, MILPAH); Komunitateen Garapena sustatzeko Hondurasko Zentroa (Centro Hondureño de Promoción para el Desarrollo Comunitario, CEHPRODEC); Hondurasko Herri Elkartearen eta Elkarte Indigenen Kontseilua (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras, COPINH) eta Global Witness nazioarteko erakundea. Erakunde horietako kideei leporatu zitzaizen herrialdearen izena belzte, muturreko taldeekin aliantzak izatea eta Hondurasen aurkako difamazio-kanpainak ordaintzea.

ORDEZKARIEKIN BILDU DIREN ERAGILEEK NABARMENDU DITUZTEN KASUAK

Berta Cáceres eta haren familiaren kasua

Berta Cáceresi egindako jazarpen-prozesua

Berta Cáceres Hondurasko Herri Elkartearen eta Elkarte Indigenen Kontseiluko kidea (COPINH) zen. Hainbat denboratan jazarri ondoren, azkenean, hil egin zuten. Hilketari hainbat etapatan garatu zen:

1. Hilketari politikoa lortzeko saiakera: fisikoki hil aurretik, Berta Cáceresen lana legez kanpokotzat jotzeko asmoz, beraren aurkako difamazioak eta akusazio publikoak hedatu zituzten. Mehatxuak egin zituzten, espetxeratu zuten, eta beraren gizarte-sarea apurtzen saiatu ziren.
2. Gorroto-kanpaina: politikoki hiltzea ezinezkoa zenez, haren aurkako gorroto-kanpaina abiarazi zuten, emakumea eta indigena izatea leporatuta. Horren bidez, jokabide sexistak, arrazistak eta klasistak bultzatu ziren, kalte emozionala egiteko eta beraren lana bertan behera utzarazteko.
3. Hilketari fisikoa: defendatzaile gisa zuen indarra itzaltzea eta haren nortasuna ahultzea ezinezkoa zenez, hil egin zuten, estatu-eragileek eta estatuz kanpoko eragileek parte hartuta.

Berta Cáceresen hilketa epaitzea

Ordezkariei azaldu zitzaien²⁴, misioaren garaian, 8 pertsona epaitu zirela: erretiratuta dauden bi ministro ohi; hainbat mailatako militarrek eta militar ohiak (adibidez, Mariano Díaz Chávez, Hondurasko Armadako maiorra).Paramilitarrak ere bidali ziren, bera hiltzeko: adibidez, Douglas Bustillo, Desarrollos Energéticos SA (DESA) enpresako segurtasun-burua. Bustillok sexu-jazarpena egiten zion, eta Bertari etengabe bidaltzen zizkion ilobaren argazkiak, bahitzeko mehatxuarekin batera.

Hil egin zutenean, Julián Pacheco-k, Segurtasun ministroak, jendaurrean adierazi zuen grinazko hilketa izan zela, ala COPINHe botere handiagoa eskuratzen saiatzeko barneko hilketa. Hipotesi horiek gorpua altxatu baino lehen hedatu ziren. Hilketaren gertalekua kutsatu zuten, eta horrek probarik eza eragin zuen.

Hondurasko Estatuari proposatu zitzaion CIDHeK eta MACCIHeK kasua bideratzea, Berta Cáceresek kautela-neurriak ezarrita zituelako; baina Gobernuak ezetz erantzun zuen.

Hondurasko Gobernuaren erabakia dela eta, MACCIHeK ez du hilketa ikertuko; baina Berta Cáceresek ezarrita zituen ustelkeria-akusazioak ikertuko ditu, besteak beste, aurretiko kontsulta liberrik eta informaturik gabeko emakidak egiteari buruzkoak. Ikerketa horretan aurki litzake hilketaren egile intelektualak.

Azpimarratu egiten da DESA enpresa epaitzeko garrantzia, eta, tarteko aginteekin batera, hierarkiaren kupula ere epaitzea. Berta Cáceres hil aurretik, gutxienez, COPINHeKO bost emakume ere hil zituzten. Oro har, pentsatzen da Agua Zarca proiektua indargabetu behar dela, hilketa gehiago ez gauzatzeko.

Berta Cáceresen senideen aurkako erasoak

Berta Cáceresen familiakoek ordezkariak jakinarazi diete Bertak jasan zituen fasez faseko jazarpenez bera haiek ere jasaten ari direla. Eraso mediatiko oso gogorra egiten ari zaie, ohorea eta legitimazioa kentzeko. Babes-neurriak eskaini dizkiete, baina familiakoek adierazi dute ez direla nahikorik, ezta egoeraren araberakoak ere; gainera, babesleek konfiantzazko pertsonak izan beharko lukete. Ordezkariek Hondurasera heldu baino egun batzuk lehenago, Olivia Zúñiga Cáceresi eraso egin zioten, beraren semea babes-neurri gisa emandako ibilgailu ofizialean bidaiatzen zuen bitartean (semea Berta Cáceresen iloba da); eta Berta Zúñiga Cáceresi eraso zioten identifikatu gabeko gizon armatu batzuek. Hurrengo puntua COPINHi buruzkoa da, eta horri buruzko datu gehiago azalduta daude.

Hondurasko Herri Elkarteen eta Elkarte Indigenen Kontseilua (COPINH)

COPINHeKO burua Berta Zúñiga Cáceres da, gaur egun; eta Kontseiluaren egoera oso arriskutsua da. Kontseiluko kide batzuk hil dituzte, eta kideek gaur egun etengabe jasotzen dituzte erasoak, mehatxuak eta jazarpenak.

2017ko ekainaren 30ean, COPINHeKO Berta Zúñigak eta beste bi kidek, Sotero Chavarría-k eta Asunción Martínez-ek, bi pertsonaren erasoak jaso zuten (erasotzaileak ez dira identifikatu). COPINHeKO hiru kideak La Esperanza udalerrira itzultzen ari ziren, La Paz-eko Santiago Puringla udalerriko Candire komunitatetik. Atentatuei buruzko ikerketa ofiziala kritikatu da La Esperanza udalerriko COPINHean argazkiak hartu zituztelako, eta salatutako atentatuei lotuta ez zeuden galderak egin zituztelako.

²⁴ Ordezkariei txosten hau eman zaie: *Hechos y circunstancias alrededor del asesinato de Berta Cáceres Flores. En la búsqueda de los autores intelectuales*. Oxfam, Land Rights Now y Defensoras de la Madre Tierra, 2017ko otsaila.

Plataforma Agraria del Aguán (Aguán-go Nekazaritza Plataforma)

Ordezkariei azaldu zaie Aguán-go Nekazaritza Plataformako 149 kide erail dituztela²⁵, Hondurasko bisitaldian eguneratutako datuen arabera; eta zortzik erbesteratu behar izan dutela, hilketak salatu dituztelako. Azken urteotan, kolektibo horren arrisku-maila ikaragarri handitu da. Ziurtatu ahal izan dute segurtasun pribatuko enpresen bitartezko heriotza-eskuadroiak osatu direla, eta kolektiboetan infiltratzen eta hilketa selektiboak egiten espezializatuta daudela. Aguán ibaiaren ingurunean dagoen segurtasun pribatuko enpresak Hondurasko Unibertsitate Nazional Autonomoan (UNAHen) ere jardun zuen.

Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordearen datuen arabera (COFADEH), 700 nekazari inguru prozedura judizialera eraman zituzte 2010. eta 2016. urte bitartean. 2016an, Nazio Batuen Elkartearen arabera²⁶, giza eskubideen 11 defendatzaile hil zituzten, eta bederatzi kide herrialdetik joanarazi zituzten, erasoak eginez eta beldurraraziz.

Panamako komunitatearen kasua azaldu da. 2016ko ekainean, bi nekazari gazte futbol-zelai batean hil zituzten, berrogeita hamar pertsonaren aurrean. Gerra-jarduketa bat da, eta herritarrengan beldurra sentiarazteko egiten da. Hiltzailea identifikatu da, eta, harrapatzeko agindua eman arren, aske dago, eta ohikoa da Dinant korporazioaren lursailetan egotea. Dinant Korporazioa hondurastar enpresa da, eta elikatzeko produktuak eta garbitzeko produktuak egiten ditu. Korporazio hori Bajo Aguán ingurunean berriro legitimatzeko, aipatu egin da Hondurasko Gobernuak, Munduko Bankuak eta Dinant Korporazioak koalizio-estrategia bat osatu beharko luketela, eta Munduko Bankuko aholkularien bisitaldien bitartez, eremu horren egoera egiaztatzeko ibilbide-orria ezarri.

2016ko urrian, Aguán-go Nekazarien Mugimendu Bateratuko (Movimiento Unificado Campesino del Aguán, MUCA) bi buru hil zituzten, eta biek CIDHren kautela-neurriak ezarrita zituzten²⁷. Hiltzaileak identifikatu ziren, eta jada aske daude.

Ordezkariei azaldu zaie kezka handia dagoela Hondurasko Gobernuak Aguán esparrua 2018an berrantolatu nahi duelako, eta, ziur asko, horrek indarkeria gogortuko duelako. Berrantolamendu horren bidez, garapen ekonomikorako eremu bereziak identifikatu nahi dituzte; eremu horiei hiri eredugarriak ere esaten zaie. Eskualde hori osatzen duten 10 udalerrietatik 9 udalerritan 47.000 hektarea eman dira meatzaritzako jardueretarako.

²⁵ Aguán ibaia inguratzen duen eskualdea Aguán Beherea (Bajo Aguán) da; eta, zehazki, Colon eta Yoro Departamentuetan kokatuta dago.

²⁶ Nazio Batuen Elkartea (2017a). 57. apartatua.

²⁷ Amnistia Internazionala (2016a).

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESA

Legegintzari buruzko atalean Babes Legea aipatu da, bai eta ordezkariekin bildu diren eragileek lege horri buruz duten iritzia ere. Segidan, beste babes-tresna batzuk azaldu ditugu, bisitaldian haiei buruzko informazioa bildu baitugu. Tresnok nazionalak zein nazioartekoak dira.

BABESERAKO SISTEMA NAZIONALA

Giza Eskubideen Defendatzaileak, Kazetariak, Gizarte Komunikatzaileak eta Justizia Operadoreak defendatzeko Sistema Nazionala atxikita dago Hondurasko Gobernuaren Giza Eskubide, Justizia, Gobernazio eta Deszentralizazio Idazkaritzari. Babes Legean oinarrituta eratu da unitate hori. Babeserako Sistema Nazionalak, Babes Legearen 19. artikulua arabera, eginkizun hau bete behar du: beste erakunde publikoekin eta, oro har, herritarrekin koordinazio-oinarriak finkatzea, politika publikoaren eta giza eskubideen plan nazionalaren eremuan babes eraginkorra bermatzeko. Horrez gain, legea aplikatzeko ekintzak, araudiak eta baliabideak biltzen ditu. Sistemaren osaera: 1) Estatuko Idazkaritza, zuzendaritza-organo gisa, Giza Eskubideak, Justizia, Gobernazioa eta Deszentralizazioa kudeatzeko bulegoetan; 2) Babeserako Kontseilu Nazionala; 3) Babeserako Sistemaren Zuzendaritza Nagusia; 4) Babes Mekanismoaren Batzorde Teknikoa; 5) Estatuko Idazkaritzaren Giza Eskubideen Saila, Segurtasun Bulegokoa.

Ordezkariei azaldu zaienaren arabera, babes-sistemak esku hartu ahal izateko, kausa-lotura egon behar du arrisku-egoeraren eta giza eskubideen defendatzaileak egiten duen lanaren artean. Poliziako agentzia tekniko batek aztertzen ditu defendatzaileen hilketak. Kanpoko enpresa bat kontratatu da, segurtasun-neurri fisikoak ezartzeko (adibidez, harresiak eraikitzeke, hortzak dituzten alanbrezko hesiak jartzeko...).



Ordezkariek Babeserako Sistemako zuzendari nagusiarekin eta Justizia eta Giza Eskubideen idazkariordearekin izandako bilera.

Ordezkariei azaldu dizkieten datu ofizialak, Babes Mekanismo Nazionalari buruz

Bisitaldiaren egunean, Babeserako Sistema Nazionalak jakinarazi du 103 eskaera jaso dituela, eta 56 kudeatzen ari dela. Estatuaren babes handiagoa eskatu duten pertsona gehienak giza eskubideen defendatzaileak dira, besteak beste, LGTTBI pertsonak, kazetariak eta, azkenik, justizia-operadoreak.

Honako neurri hauek onartu dituzte:

- Herrialdeko beste leku batean kokatzea (10 pertsona)
- Estatuaren babes-neurriak (300 pertsona, eta haietako 89 polizia bidez babestu dira; gainerakoei kamerak, harresiak, serpentinak, telefonoak, txalekoak eta abar eman zaizkie).

Babeserako Sistema Nazionalari buruzko iritziak

Babeserako Sistema Nazionalaren funtzionamenduari eta sorrerari buruzko iritziak askotarikoak eta kontraesankorrak dira. Ontzat ematen da estatu-egiturak sortzea, giza eskubideen defendatzaileak babesteko; hala eta guztiz ere, eraginkorra ez izatea leporatzen zaio, eta eraginkortasunik eza hainbat arrazoiengatik gertatzen da. Besteak beste, honako hutsune hauek nabarmentzen dira:

- Gobernuaren borondaterik eza, giza eskubideen defendatzaileak babesteko, aurrez jakinda giza eskubideen defendatzaileek beren lanaren bidez eragin ahal dietela botere ekonomiko eta politikoa duten taldeei.
- Giza eskubideen defendatzaileen konfiantzarik eza Hondurasko erakundeetan. Pentsatzen da Hondurasko Gobernuak era kaltegarrian erabil dezakeela sistema horrek biltzen duen informazioa, hau da, giza eskubideen defendatzaileen gaineko kontrola areagotzeko erabil dezakeela.
- Sistemak behar bezala funtzionatzeko behar diren aurrekonturik eta baliabide teknikorik eza.
- Babes-neurriak giza eskubideen defendatzaileen premietara egokiturik ez izatea, batez ere, emakumeen eta landa-inguruneetan bizi diren pertsonen premietara.

Aipatu egin da Babeserako Sistema Nazionalak erantzukizuna eduki beharko lukeela, giza eskubideen urraketen kausei dagokienez. Xede bakarra ezin da izan urraketa gertatu ondoren laguntza ematea eta ondorioei soilik erreparatzea, baizik eta urraketen kausak ezabatzea.

Halaber, beharrezkotzat jotzen da sistemak babes-neurri fisikoez gain, babes osoa kontuan hartzen duen ikuspegia garatzea. Jakinarazi da ez dagoela konfiantzarik poliziako kideen laguntzan, agerikoa baita segurtasun kidego horrek eta krimen-egiturek loturak dituztela.

Bestalde, jakinarazi da prozedurak oso geldi egiten direla, eta prozedura egin bitartean, erasoek jarraitu egiten dutela. Giza eskubideen defendatzaileak herrialdetik irtetera behartzen ari dira. Herrialdetik joaten direnek ez dute horren berri ematen, beldur baitira jazarpenak helmugako tokian ere jarraituko duen, krimen-egiturek boterea eta transnazionalizazioa baliatu ahal dituztelako.

Fiskaltzak, giza eskubideen defendatzaileak babesteko arloan, ahalmena dauka babes-neurrietan eragina izateko, Babes Mekanismoko Batzorde Teknikoan parte hartzen baitu. Babeserako Sistemako Zuzendaritza Nagusian aurkezten diren babes-eskaeren arloan, organo horrek arrisku-azterketei, ebazpenaren eztabaidari eta erabakiari buruzko irizpenak emateko ahalmena dauka. Oro har, ez dago konfiantzarik batzorde horretako eginkizunean, besteak beste, jardun-maila oso txikia delako: 200 kasutik Fiskaltzak bost baino ez ditu aztertu. Hori dela eta, gizarte-erakundeek eta gizarte-mugimenduek ez dute harreman handirik Fiskaltzarekin. Horrez gain, Babeserako Sistema Nazionalaren Batzordea 14 kidek osatzen dute, baina bi kide baino ez dira gizarte zibileko herritarrak. Gainera, aipatu da ordezkariak hautatzeko irizpideak ez daudela batere argi.

Bereziki garrantzitsutzat jo da Fiskaltzak babes-neurriei buruz hartzen dituen erabakien jarraipena egin beharra. Nazioarteko kooperazioak baliabideak ematen dizkio.

Azkenik, oso kezagarritzat jotzen dituzte Gobernuak baliatzen dituen irizpideak, giza eskubideen defendatzaileak nortzuk diren erabakitzeko. Unibertsitatea aipatu dute adibide moduan. Gobernuaren ustez, egoera horri pertsona bortitz batzuek sortu dute, baina ez dauka loturarik giza eskubideak defendatzearekin. Ikuspegi hori dela eta, babes-sistemak ez dauka esku hartzerik egoera horretan.

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HONDURASKO KOMISARIO NAZIONALAK (CONADEH)²⁸

Herrialdeko 18 departamentutan dago, eta titularra sei urtean behin hautatzen da. Gaur egungo komisarioa, Roberto Herrera Cáceres, 2014ko martxoan hasi zen komisario jarduten.

Estatuak sortu duen erakunde independentea da, giza eskubideak Hondurasen zaintzeko, sustatzeko, babesteko eta defendatzeko. Txosten tematikoak eta urteko txostena egiten ditu. Ahalmena dauka ikerketa-prozesuetan gomendioak egiteko. Gobernuak ez dauka gomendioak erantzuteko betebeharririk.

CONADEHek Babes Legea ezartzen lagundu du, Babes Kontseiluan aholku emanaz eta parte hartuz. Protokoloak eta arrisku-azterketak egiten, jarraipen egokia gauzatzen eta prebentzioa ematen ere parte hartu du.

Justiziaren, Giza Eskubideen eta Bake Kulturaren arloko Hezkuntzarako Plan Nazionala ezartzeko neurri gisa, CONADEHek babeserako sistemari buruzko prestakuntza-prozesuak egin ditu azken urteotan, erakundeetako langileei zuzenduta. Abokatuen Elkargoarekin jardun dute, bai eta, indarkeriaren ondorioz, eskolara ez joateko tasa oso handiak dituzten hezkuntza-zentroetan ere. Horrez gain, kazetariak trebatzeko plan bat ere antolatuta dago.

Ordezkariei azaldu zaie salaketak erakunde horretan aurkezteko prozedura. Giza eskubideen urraketen gaineko salaketak eskualdeko ordezkartzetan aurkezten dira, eta bertan laguntza (bizkartzainak) eskaintzen da, pertsonen osotasun fisikoa bermatzeko. Telefono-linea bat (132) ere badago, salaketak jarri ahal izateko. Beldur direlako, giza eskubideen defendatzaileek salaketa aurkeztu nahi ez dutenean, CONADEHek zuzen bidaltzen dizkio kasuak Babes Mekanismo Nazionalari.

GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ETA SUSTATZEKO TOKIKO SISTEMAK

Jakinarazi da Giza Eskubideak Babesteko eta Sustatzeko Tokiko Sistemak sortu direla, babeserako udal tresna izateko diseinatuta. Pertsonen eta komunitateen segurtasunaren aurkako mehatxuak gertatzen direnean, babes sistematikoa emateko eta sustapenerako mekanismoak izan beharko lukete. Horrez gain, salaketak izapidetzeko bideak ere izango dira, eta herritarrek haien bitartez eskuratu ahalko dute Gobernu Nagusiaren, Udal Gobernuaren eta gizarte zibileko erakundeen neurriei, proiektuei, programei eta laguntzei buruzko informazioa.

Adibide moduan aipatu da, CONADEHek ekimen bat bultzatu duela: Ongizate solidariorako udalerririak. Leku horiek gune publikoak berreskuratzeko eta berreraikitzekeko estrategiatzat hartzen dira.

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIO BATUEN GOI-KOMISARIOAREN BULEGOA (OACNUDH)²⁹

Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritza Nagusiari atxikita, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoak (OACNUDH) giza eskubideak sustatzeko eta babesteko munduko lana koordinatzen du, Estatu eta gizarte zibileko erakunde nazionalen arteko kooperazioa bultzatuz eta erakundeok sendotuz.

Hondurasko Estatuak eta goi-komisarioak 2015eko maiatzean sinatu zuten Hondurasko bulegoa ezartzeko erabaki ofiziala. OACNUDHek erabateko agindua dauka, hau da, kooperazio tekniko, behaketa eta informazioa:

- Hondurasko Estatuari aholku teknikoak ematea, giza eskubideak susta ditzan eta babes-politikak eta -programak garatu eta betearazi ditzan.
- Giza eskubideen egoera nazionala kontrolatzea eta haren berri ematea.
- Herritar zibilei eta partikularrei aholku ematea, giza eskubideen sustapenari eta babesari buruz, nazioko zein nazioarteko mekanismoak ere erabiliz.

²⁸ <http://conadeh.hn/>

²⁹ <https://oacnudh.hn/>

- Giza Eskubideen Kontseiluari jakinaraztea, Honduras herrialdean giza eskubideen egoera nolakoa den.

HONDURASKO USTELKERIAREN ETA ZIGORGABETASUNAREN KONTRAKO LAGUNTZA-MISIOA (MACCIH)³⁰

Giza eskubideen lanaren arloan, agintaldiaren arabera, OACNUDHrekin batera jarduten du, eta informazioa bidaltzen dio organismo horri. Berta Cáceresek DESA enpresaren jardunari buruz jarri zituen salaketak ikertzen laguntzeaz gain, landa-ingurunean justizia erabili ahal izateko programa bat garatzen ari da, komunitateetako buruen trebakuntzaren bidez. Hori horrela, programa horretan MACCIHren balorazio onena duten erraztaileak indarkeriazko egintzen biktimak izan dira.



O
r

Ordezkariek, Amerikako Estatuaren Erakundearen bulegoaren sarreran (Tegucigalpan).

GIZA ESKUBIDEEN ETA GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERAREN EGIAZTAPENA ETA JARRAIPENA EGITEKO NAZIOARTEKO MISIOAK

Azalpenen arabera, badirudi misio horiek hilketa gutxiago gertatzen laguntzen dutela, eta eraso egiteko asmoetan disuasio-eragina izaten dutela. Bereziki azpimarratu dute Honduras bisitatzeko garrantzia, atzerrira informazio gutxi heltzen baita herrialdearen egoerari buruz.

Euskal ordezkari gehienak emakumeak izateak ezustea eragin du, eta ontzat hartu dute ordezkarien parte hartzea. Bestalde, egokitzen jotzen dute emakumeek erakundeetan eta gizarte-erakundeetan parte hartzea eta haien lana nabarmentzea.

NAZIOARTEKO BABESERAKO PROGRAMAK

Instituzioek, erakundeek eta gizarte-mugimenduek oso egoki irizten diete babeserako nazioarteko programei, Hondurasko giza eskubideen defendatzaileek izaten duten egoera larria dela eta. Programa horien irismena hobetzeko eta defendatzaileen egoeretara egokitzeko proposamen hauek egin dituzte: programa horiek defendatzaileen familiak ere babestea eta jatorritik hurbil dauden eskualdeetan ere programa horiek sortzea eta indartzea.

³⁰ <http://www.oas.org/es/sap/dsdme/maccih/new/mision.asp>

HONDURASEN DAUDEN ENBAXADAK

Enbaxadek Hondurasko erakundeak sendotzeko agindua dute; horretarako, politika publikoen eraginkortasuna sustatu behar dute. Giza eskubideen arloko aholkulari teknikoen, prestakuntza-ekintzen eta sentsibilizazio-jardueren bidez egiten dute lan hori.



Espainiako enbaxadorearekin eta AECID ordezkariarekin izandako bilera.

ONDORIOAK

Euskal Ordezkaritzak eskertu egiten du Hondurasko giza eskubideen erakundeek, gizarte-mugimenduek, nazioarteko erakundeek eta organismoek eta Hondurasko erakunde publikoek egin dioten harrera. Ordezkaririk konpromisoa hartzen dugu giza eskubideen defendatzaileen egoerari adi egoten jarraitzeko eta haien jardunean behar duten segurtasuna zaintzeko. Aldi Batez Babesteko Euskal Programaren bidez babesten ditugun pertsonen eta haien erakundeen (COFADEHi eta INHESCOri) arreta berezia emango diegu). Horrez gain, Euskal Ordezkaritzak bere gain hartu dituen konpromisoetan eta jakinarazi dizkieten konpromisoetan lan egiten jarraituko du; konpromiso horiek dira, besteak beste, Berta Cáceresen kasuaren, ikasleen mugimenduak bultzatutako eskubideen aldarrikapenaren eta 2017ko azaroaren hauteskundearen ondoriozko egoeraren jarraipena egitea.

Euskal Ordezkaritzak begirunea eta elkartasuna adierazten dizkie giza eskubideen defendatzaileei, haren kolektiboari eta komunitateei. Halaber, aintzat hartzen dugu herrialde libre eta pobrezirik gabeko eraikitzearen egiten duten ezinbesteko eta legezko lana.

KEZKAK

Honako gai hauek oso kezkarritzat jo ditugu:

- Bereziki adierazi nahi dugu kezkarritzat jotzen ditugula giza eskubideen defendatzaileek, herri indigenek, afrikar ondorengoek, nekazariak, ingurumenaren eta lurraldearen defendatzaileek, sexu-aniztasunaren defendatzaileek eta emakumeek jasaten dituzten indarkeria, mehatxuak, atentatuak, kriminalizazioa, judizializazioa eta estigmatizazioa. Halaber, giza eskubideen alde egiten duten defentsa baketsua errespetatzen dugu eta elkartasuna adierazi nahi diegu; batez ere, herrialdean gaur egun bizi den egoeran, hauteskunde-prozesua dela eta.
- Halaber, gu ere kezkatzen gaitu instituzioek eta gizarte-erakundeek jakinarazi diguten giza eskubideen urraketen zigorgabetasun handiak. Izan ere, giza eskubideen defendatzaileek, haien kolektiboek eta komunitateek jasaten dituzten erasoaren aurrean zigorrik ez egoteak kezkatzen gaitu.
- Bereziki arduratzen gaitu Hondurasko erakundearen ahuleziak, adierazi digutenaren arabera. Halaber, kezkarritza da botere-banaketarik ez egotea, eta Gobernuak, eta, zehatzago esanda, presidentek botere horiek zentralizatuta edukitzea. Larria da herritarren eta giza eskubideen defendatzaileen eskubideak murrizten dituzten legeak onartzea: esaterako, Komunikazio Pribatuetan esku hartzeari buruzko Legea; Segurtasun eta Defentsa Nazionalari buruzko Dokumentu Publikoak sailkatzeko Legea; eta Zigor Kodearen erreforma.
- Euskal ordezkaririk entitate politikoekin, instituzionalekin eta sozialekin bildu ginen giza eskubideen bermea eta haien defendatzaileen babesaren ebaluatzeko, eta bilera horietan guztietan azaldu ziguten presidentea hautatzeko prozesuak kezka handia sortzen diela. Hauteskunde-prozesua behar bezalako berme, legezotasun eta gardentasunarekin egin beharko litzateke, nazioarteko komunitateak arlo horretan ezartzen dituen baldintzei jarraikiz.
- Bestalde, nabarmentzekoak dira giza eskubideen babesaren arloan behatu ditugun aurrerapen batzuk: esaterako, Giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak, gizarte-komunikatzaileak eta justizia-operadoreak defendatzeko legea eta babes-mekanismoa, legea aplikatzeko sortuta. Horrekin batera, legearen eta mekanismoaren eraginkortasunik ezak ere kezkatzen gaitu, Euskal Ordezkaritzarekin bildu diren agente guztiek adierazi dutenaren arabera. Horren harira, herrialdean gertatzen diren hilketen kopuru handia ikaragarria da; gainera, hil dituzten pertsona batzuek babes-neurriak zituzten, Giza Eskubideen Amerika-arteko Batzordeak ezarrita. Izan ere, neurri horiek ezarrita eduki arren, Berta Cáceres hil zuten. Botere publikoen baliabiderik eza aipatzen da, eraginkortasunik eza azaltzeko, baina hori ez dator bat herrialde batzuek erakundeak sendotzeko egiten dituzten ekarpenekin. Honako hauek dira eraginkortasunik ezaren beste azalpen batzuk: Gobernuaren borondate politikorik eza, ustelkeria, kargudun publikoek botere ekonomikoko egiturekin eta krimen-egiturekin dituzten loturak eta Estatuko zein estatuz

kanpoko agenteek egiten dituzten giza eskubideen defendatzaileen estigmatizazioa eta kriminalizazioa. Egoera horren ondorioz, batetik, herritar zibilek ez dute konfiantzarik Hondurasko erakundeetan; eta, bestetik, giza eskubideak Hondurasen defendatzen dituzten pertsonen, kolektiboen eta komunitateen egoera oso arriskutsua da, botere ekonomikoek eta politikoez beren interesen kontrakotzat jotzen dituztelako.

GOMENDIOAK

Euskal Ordezkaririk erakundeei, nazioarteko organismoei, diplomatikoen kidegoari eta erakunde sozialei eskatzen die giza eskubideak eta haien defendatzaileak Hondurasen babesten jarraitzeko, baita babes hori indartzeko ere.

Gainera, hauxe gomendatzen die Hondurasko agintariei eta erakundeei:

- Giza eskubideen aldeko defendatzaileak babesteko mekanismoak garatzen, defendatzaileei laguntza ematen eta haiek egiten duten lana erakusten jarraitzeko, giza eskubideak sustatzeko eta defendatzeko lan egiten duten nazioarteko organismo, erakunde eta instituzioekin batera.
- OACNUDHek, MACCIHek eta CONADEHek egindako lanaren garrantzia kontuan hartzea.
- Giza eskubideen aldeko defendatzaileen, haien kolektiboen eta komunitateen funtsezko lana legezkoztat jotzeko berme politikoak sustatzea, haiek ez kriminalizatzea eta haiek kriminalizatzeko xedea duten akzioak zehatzea.
- Ekintzak abiaraztea, araudien garapena eta babeserako mekanismoak ezartzeaz gain, estrategiak eta jarduketak ere ezartzeko, Hondurasen gertatzen diren giza eskubideen urraketak eta defendatzaileen aurkako erasoak bultzatzen dituzten kausak ezabatze aldera.
- Estrategia eta ekintza horiek gizarte zibil antolatuaekin batera garatzea, eta babeserako sistema nazionalak eta CONADEHek behar dituzten baliabideak ziurtatzea.
- Berehalako ikerketa independenteak, objektiboak eta erabatekoak egitea, giza eskubideen defendatzaileen hilketei buruz, bai eta defendatzaileen, haien kolektiboen eta komunitateen aurkako indarkeriari buruz ere. Ikerketek egile intelektualak eta materialak identifikatzea eta zigorgabetasuna Hondurasen ezabatzea helburu eduki beharko lukete.
- Garapen-proiektuen ezarpena eragozteko, baldin eta aurretiko kontsulta askea eta informatua egiteko eskakizuna bete ez badute; eta proiektu horiei eskatzea giza eskubideen, lan-eskubideen eta ingurumen-eskubideen arloetako berme sendoak ezar ditzaten.

BIBLIOGRAFIA

TXOSTENAK

Amnistía Internacional (2016a): *Acción urgente: Dos líderes campesinos muertos a tiros*. AU: 241/16 Índice AMR 37/5015/2016 Honduras. 2016ko urriaren 19a.

Amnistía Internacional (2016b): *Defendemos la tierra con nuestra sangre. Personas defensoras de la tierra, el territorio y el medio ambiente en Honduras y Guatemala*. Índice nº AMR 01/4562/2016. Amnistía Internacional, 2016.

CIPRODEH (2016): *Informe sobre el incumplimiento de las medidas cautelares y provisionales en Honduras*. Centro de Investigación y Promoción de los Derechos Humanos.

CIDH (2015): *Informe país: Situación de los derechos humanos en Honduras*. CIDH, diciembre 2015. Comisión Interamericana de Derechos Humanos, Organización de Estados Americanos. 2015eko abenduaren 31.

CIDH y Naciones Unidas (2016): *Honduras, uno de los países más peligrosos para los defensores de derechos humanos, advierten expertos*. Comisión Interamericana de Derechos Humanos y Oficina del Alto Comisionado para los Derechos Humanos de las Naciones Unidas, 2016ko abuztuaren 19a. Geneva / Washington, DC

Coalición Contra la Impunidad (2017): *Honduras Informe de sociedad civil sobre la implementación del PIDCP. Respuesta a la lista de cuestiones (CCPR/C/HND/Q/2)*. 2017ko ekaina.

COFADEH y IEPALA (2014): *Honduras, misión parlamentaria de observación de derechos humanos*. Comité de Familiares de Detenidos Desaparecidos en Honduras e Instituto de Estudios Políticos para América Latina y África, 2014.

Global Witness (2017): *Honduras, el país más peligroso para defender el planeta*. Londres, 2017ko urtarrila.

Naciones Unidas (2017a): *Informe del Relator Especial sobre las ejecuciones extrajudiciales, sumarias o arbitrarias acerca de su misión a Honduras*. Asamblea General, Consejo de Derechos Humanos. A/HRC/35/23/Add.1, 2017ko apirilaren 11koa.

Naciones Unidas (2017b): *Informe anual del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos sobre la situación de los derechos humanos en Honduras*. Asamblea General, Consejo de Derechos Humanos. A/HRC/34/3/Add.2, 2017ko otsailaren 9koa.

Naciones Unidas (2017c): *Observaciones finales sobre el segundo informe periódico de Honduras*. Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos, Comité de Derechos Humanos. CCPR/C/NHD/CO/2, 2017ko abuztuaren 22koa.

Naciones Unidas (2016a): *Informe de la Relatora Especial sobre los derechos de los pueblos indígenas sobre su visita a Honduras*. Asamblea General, Consejo de Derechos Humanos de las Naciones Unidas. A/HRC/33/42/Add.2, 2016ko uztailaren 21ekoa.

Naciones Unidas (2016b): *Informe del Relator Especial sobre los derechos humanos de los desplazados internos acerca de su misión a Honduras*. Asamblea General, Consejo de Derechos Humanos. A/HRC/32/35/Add.4, 2016ko apirilaren 5koa (arrazoi teknikoak direla eta, 2016ko maiatzaren 31n berrito argitaratu da).

Naciones Unidas (2016c): *Observaciones finales sobre el informe inicial de Honduras*. Comité de Protección de los Derechos de Todos los Trabajadores Migratorios y de sus Familias de las Naciones Unidas. CMW/C/HND/CO/1, 2016ko urriaren 3koa.

Naciones Unidas (2016d): *Observaciones finales sobre el segundo informe periódico de Honduras*. Comité de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, Consejo Económico y Social de las Naciones Unidas. E/C.12/HND/CO/2, 2016ko uztailaren 11koa.

Observatorio para la Protección de los Defensores de Derechos Humanos (2017): *Honduras: Estigmatización pública de parte del Estado hondureño contra la Coalición contra la Impunidad*. 2017ko uztailaren 12koa. Organización Mundial Contra la Tortura (OMCT) y Federación Internacional de Derechos Humanos (FIDH).

Parlamento Europeo (2016): *Resolución del Parlamento Europeo, de 14 de abril de 2016, sobre la situación de los defensores de derechos humanos en Honduras*. 2016/2648(RSP).

PBI Honduras (2015): *Honduras Examen Periódico Universal 2015. Briefing sobre la situación de las personas defensoras*. Peace Brigades International, Proyecto Honduras, 2015eko otsailekoa.

PBI Honduras (2016): *Honduras: Derechos Económicos, Sociales y Culturales. Briefing sobre la situación de las personas defensoras*. Peace Brigades International, 2016ko ekainekoa.

PBI Honduras (2016): *Boletín PBI Honduras*. Peace Brigades International, 2016ko abendua.

Varias autoras (2016): *Resumen ejecutivo: Informe de la Misión Internacional Justicia para Berta Cáceres*. Hainbat egile, 2016ko apirilekoa.

WEBGUNEAK

ACI-Participa, Asociación para una Ciudadanía Participativa

<http://aciparticipa.org/>

Amnistía Internacionala: Hondurasi buruzko informazio orokorra duen web-orria:

<https://www.amnesty.org/es/countries/americas/honduras/>

CEM-H, Centro de Estudios de la Mujer Honduras

<http://www.cemh.org.hn/>

COFADEH, Comité de Familiares de Detenidos Desaparecidos en Honduras

https://www.facebook.com/profile.php?id=100004767908229&hc_ref=SEARCH&fref=nf

Comisión Interamericana de DDHH: situación de DDHH en Honduras

<http://www.oas.org/es/cidh/multimedia/2016/Honduras/Honduras.html>

Defensores en línea

<http://defensoresenlinea.com/>

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de DDHH:

<http://im-defensoras.org/?cat=20>

MACCIH-OEA, Misión de Apoyo Contra la Corrupción y la Impunidad en Honduras de la Organización de Estados Americanos

<http://www.oas.org/es/sap/dsdme/maccih/new/mision.asp>

Nazio Batuen Elkarteak: OACNUDHren Hondurasi buruzko orri orokorra

<http://www.ohchr.org/SP/Countries/LACRegion/Pages/HNIndex.aspx>

Peace Brigades International (PBI), proyecto Honduras

<http://www.pbi-honduras.org/??&L=0>

Radio Progreso

<http://radioprogreso.net/>